

Herririk Herri |3|

Kataluniako herri-kontsulta bultzatzen daben koordinadora Elorrión bisitan

Ekonomia |10|

Trantsumantzia gogoratuko dabe zapatuan Durangon eta lurretan



Berbaz |9|

I. Gorritxategi: "Pertsoneri laguntzen deutsegu, bardin jaku nongoak diren"

Mediku zerbitzua Zelaietan mantendu daiten eskatuz

Abadiño• Hainbat herritarrek Zelaietako mediku zerbitzua Matienara aldatuko deutseela salatu dabe. Alkateak Osakidetza-ri ezinegonaren barri emongo deusala jakitera emon deutse.

4

Ordenantza fiskalak zegozenean itzi ditu Udalak

Atxondo• Igoera barik onartu ditu Udalak tasa eta zerga gehienak. Frontoiko dutxen erabilera eta zilindrada handiko autoena dira igo diren bakarrak. EAJ proposamenaren kontra azaldu da.

8

Zaldibarko argazki lehiaketako herriko sariaren irabazlea

KULTURA • Kenyara uda hone-tan egindako bidaian hartutako argazki batez irabazi dau Iñigo Bernedo Belar zaldibartarrak Iar-gi argazki taldeak aurten antola-tutako argazki lehiaketa. Natura argazkigintzan jarduten dau.

13

Cafés Baquéren finalak jokatuko dira, etzi, Matienan

KIROLA • Pilotazaleek hitzordu garrantzitsua daukie domekan. Matienako pilotalekuak Cafés Baqué txapelketako finalak hartuko ditu. Kadeteetan Ibai Arratibel da txapela janzteko faborito; gazte mailan Iban Jauregi.

25

• Durango

EBPN barriagaz ekintza kopurua bibidertuz

6

• Izurtza

Trafikoa herrigunetik zelan alden du aztergai dau Udalak

4

• Otxandio

Udalaren eta SGAEren arteko auzian akordiora heldu dira

8

Aiartzaguena eta Esteibarlanda epailearen aurrean deklaratzeko

> lurreta eta Elorrioko bi gazteei Segiko kide izatea leporatzen deutsee

> Audientzia Nazionalera eroan ditue atxilotutako gainerako gazteekin

2



Ana Domínguez

'Beldur barik' emakumeenganako erasoen kontra

Durangaldea• Eskualde osoan hainbat ekitaldi antolatu ditue azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren harira. *Beldur barik* goiburua aukeratu

dabe aurten indarkeria matxista salatzeke. Berdinsareatik, indarkeriaren aurkako mezua gazteei helarazi deutsee. Eguaztenean elkarretaratze eta manifestazioak deitu zitueen eskualdean.

2

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA

Sagasta
Pintarak

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

- Fatxadetarako proiektu bereziak (impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Emakumeenganako indarkeria salatu dau gizarteak

Biolentzia matxistaren kontra protesta ekitaldiak egin ditue Durangaldeko hainbat herritan

Erasoei aurre egin beharra dagoela ohartarazo dabe, asteon, gizarte eragileek, biolentzia matxistaren biktimak gogora ekarriz; Euskal Herrian zazpi hil dira, Bilgune Feministaren datuen arabera. Azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna, izan zen eguaztenean, eta hori aintzat hartuta hainbat ekitaldi izan dira udalek emakume elkarreetekin batera antolatutakoak.

Eguaztenean bertan, kontzentrazinoak izan ziren Abadiño,

Elkarretaratzeak deitu zitueen eguaztenean Durangaldeko hainbat herritan; Durangon manifestazioa be deitu eben

Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio eta Iurretan, esaterako. Hainbat herritarrek egin eben bat genero biolentziaren aurkako aldarriagaz. Durangon, Plataforma Feministak deituta—Andereak eta Bilgune Feminista—manifestazioa be egin eben. Udalak be deitu eban parte hartzera, eta makina bat andra eta gizon bertaratu ziren.

Puntu moreak

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera agertuz, puntu moreak be jarri dira zenbait udaletxe eta udal azpiegituratan. *Beldur barik* lelopean zabaldu dabe instituzinoek aurten emakumeenganako indarkeriaren kontrako aldarria. ■ A.B.



Indarkeria matxistaren biktimak hartu zitueen gogoan, eguaztenean, Durangaldean. Kepa Aginako

Mugikortasun ikuspegi "integrala" daukan garraio eredua eskatu dabe

"Hainbat disziplina" batuko dituen garraio sistemaren aldekoa da Durangaldeko ezker abertzalea

Mugikortasunaren ikuspegi "oso" eta "integrala" daukan garraio sistema iraunkorra diseinatzearen aldekoa da Durangaldeko ezker abertzalea, "hainbat disziplina" batuz. Izan be, Lurralde Zati Plana (LZP) aitatzuz, "Durangoko Eskualde Egituran lekualdatzeen %45 ibilgailu pribatuan" eginikoak direla dinoe, "%42 oinez eta %7 garraio publikoan; Durangaldean barrena dira %79". Balazarino ekonomikoan, barriz, garraio-azpiegiturei jagokonez, "garraio publikoa hobetzeko inbertsinoen %13,86" aurreikusitako dela salatu dabe, "eta %76,47 bide azpiegitura barriak eta Abiadura Handiko Trena (AHT) eraikitzeke".

LZPan garraio azpiegiturarako inbertsinoaren %13,86 erabiliko da garraio publikoa hobetzera, salatu dabenez

Eredu "alternatiboa" eskatu dau ezker abertzaleak, Jaurritzairen eta Aldundiaren ereduak "ez deitso-eta garapen iraunkorra helburu dauen lurralde antolaketapolitika bati erantzuten". Durangaldeko Amankomunazgoaren

Mugikortasun Iraunkorrerako Planari hasieratik "hankamotza" deritzoe, "bidegorriak egitetik harago ez dauka-eta ahalmenik".

Garraio publiko sistema "erosoa, eraginkorra, ondo egituratua, maiztasun handikoa eta erakargarria" behar dela dinoe, hurbileko merkataritza eta ekonomia hartu-emonak "bultzatuko" ditue-

Eredu "alternatiboa" eskatu dau Durangaldeko ezker abertzaleak, Zornotzan egindako agerraldian

na, "mugikortasuna murriztuz". Garraio "garbienei" garrantzia "handiagoa" emon eta "beharretara egokitutako trenbide publikoa eta modernoa" behar dela uste dabe, eta, "lehentasuna" izan behar dabela inbertsinoetan garraio publiko ez kutsatzaileek. Euskal Herrirako Bidai Txartel bakar baten alde dagoz. ■ A.B.



Eredu "alternatiboa" eskatu dau ezker abertzaleak Zornotzan egindako agerraldian. E. Abertzalea

Iurretako eta Elorrioko gazte bana atxilotuta

Atzo ziren epailearen aurrean deklaratzeko martitzen goizaldean Polizia Nazionalak eta Guardia Zibila, Fernando Grande-Marlaska epailearen aginduz, Segi gazte erakundegaz lotura daukielakoan atxilotutako 34 gazteak. Tartean, Eñaut Aiztegi (Iurretan) eta Ibai Esteibarlanda (Elorrio); inkomunikatuta dagoz. "Independentistak direlako" atxilotu ditueela salatu dabe senide eta lagunek, euren egoeragaitik arduratu agertuz. Manifestazioa deitu dabe biharko, Bilbon, 17:00etan.

Aiztegi eta Esteibarlanda Hondarribian atzetan eben. Sarekada salatzeke mobilizazioak deitu ditue hainbat herritan: martitzenean, 300 bat lagun batu ziren Iurretan.

Iurretako gazteagaitik "ardura" agertu dau Totorikaguena alkateak: "Lege Antiterrorista ez da bateragarria Zuzenbide Estatuagaz". Inkomunikazioa amaitu eta albat arinen epailearengana eroateko eskatu dau, bere eskubideak errespetatuz. A.B.

Sarekada salatuz, 300 bat lagun batu ziren Iurretan egindako manifestazioan



Hainbat euskal herritar behatzaile doaz Kalatuniako herri-kontsultetara

Kataluniako independentziaren inguruko kontsultaren bultzatzaileak Elorrion izan dira

A benduaren 13an Kataluniako independentziaren aldeko kontsultak egingo ditue 161 herritan. Kontsulta ez da loteslea, eta prozesua bultzatu dauen koordinakundea (Coordinadora Per La Consulta sobre la Independència) ahalik ahaleginik handiena egiten dabil nazioartean ezagutu daiten. Zabalkunde lan horren barruan, martitzenean, Elorrion izan ziren Uriel Bertran kontsultaren aldeko koordinakundeko komunikazio arduraduna eta Kataluniako Parlamentuko diputatua, eta, Jordi Miró koordinakundeko nazioarte batzordeko kidea.

Bertranek azaldu ebanez, "izaera nazionalako kontsulta da, baina nazioartean ezagutu daiten gura dogu". Ildo horretatik, nazioarteko hainbat behatzaile joango da kontsulta egunean (eurodiputatu flandestarrak eta irlandarrak eta diputatu korsikarrak eta sardi-

niarrak), eta, tartean, Euskal Herriko hamar bat ordezkari joango dira, oraindino nortzuk joango direnez ez daben arren. Halan be, "Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako behatzaileak egongo dira".

Bertranen esanetan, "Flan-des, Irlanda eta Korsikako behatzaileak be izango dira bertan, besteak beste. Horreen lana izango da "zenbaketa egitea, datuak baloratzea eta, oro har, kontsultaren garapen demokratikoa bermatzea". Guztira, 700.000 kataluniarrek bozkatu leikie abenduaren 13ko kontsultetan. ■ J.D.

Uriel Bertran: "Izaera nazionalako kontsulta da, baina nazioartean ezagutu daiten gura dogu"



Atxondo, Elorrio eta Bergarako alkateak be egon ziren.

IURRETA

Osasun zentroa Jauraritzaren esku itziko dabe

Osasun zentroa handitzeko aukera bideratu guran, zentroa eta alboko lokala —200 bat metro koadro— Jauraritzaren ondare izan daitezen erabilerarako laga gura dau Udalak; osasun zerbitzua eskaintzearen menpekoa litzake lagatze hori. Horretarako lehenengo pausoa emon dabe: lokalon desafektazioa onartu dau udalbatzarrak, eta Udalaren jabetza izatetik Jauraritzaren

Osasun zentroa handitzeko lanekin al bait arinen hastea bideratu gura dau Udalak

ondasun izatera pasatuko da. Familia mediku bat gehitu eta pediatria zerbitzua hobetu gura ditu Osakidetzak, Iñaki Totorikaguna alkateak azaldu dauenez.

Jabetza eskritoretan Iurretakoa barik Durangoko Udala ageri zen, eta hori konpontzeak eragindako atzerepenen ondoren, desafektazioa eta erabilera lagapenerako tramiteak aurtin amaitzea aurreikusi dau Totorikaguna alkateak, "Osakidetzak lanak al bait arinen hasteko aukera izan daian". Halan be, zenbait behar urtea amaitu aurretik hasiko ei ditu Osakidetzak. ■ A.B.

GABONETAKO LEHIAKETAK

ELORRIKO I. BALKOIEN GABONETAKO APAINKETA LEHIAKETA

OINARRIAK:

1. Elorrion bizi diren eta lehiaketan parte hartu gura duten herritar guztiek Marimar mertzeriara jo beharko dute, euren datuak uzteko (izen-abizenak, parte-hartzailearen helbidea, harremanetarako telefonoa)

Abenduaren 1etik 5era eman ahal izango da izena.

2. Edozelakoak direla ere, apaingarriak gabon girokoak izango dira.

3. Balkoiak abenduaren 6tik urtarrilaren 7ra arte egon beharko du apainduta.

4. Sariak ondoko hauek dira:

1. Elkarteko saltokietan trukatzeko 600 euroko txartela.
2. Elkarteko saltokietan trukatzeko 300 euroko txartela.
3. Elkarteko saltokietan trukatzeko 200 euroko txartela.



elorriko merkatarien elkarte

ELORRIKO ERAKUSLEIHO-LEHIAKETARAKO DEIALDIA

OINARRIAK:

1. Parte-hartzaileak EMEko kideak izan behar dira.

2. Erakusleihoak eguberrietako apainagarriekin apaindu behar dira.

3. Interesa duten komertzioek izena eman beharko dute abenduaren 5a baino lehen, 94 682 10 70 telefono zenbakira deituta

4. Komertzioetako erakusleihoak abenduaren 9tik 24ra apainduta eta ikusgai egon beharko dira.

5. Sariak ondoko hauek dira:

1. 600 euroko txartela.
2. 300 euroko txartela.

6. Abenduaren 26an, San Esteban egunean jakinaraziko dira irabazleen izenak.

ABADIÑO

Mediku zerbitzua Zelaieta auzoan mantentzeko eskatu dabe

Udaletxeko pleno aretoa bete-bete egin eben salaketa egitera bertaratu ziren herritarrek



Osasun arreta Zelaietan bertan jasotzeko eskubidea daukiela aldarrikatu eben herritarrek. I.E.

Konpromisoak eskatu deutzaz AHT Gelditu!-k Udal Gobernuari

Protesta ekitaldia burutu eta mozinoa aurkeztu eben udalbatzarrean

Abiadura Handiko Trenaren kontrako herriko taldeko zenbait kidek animalia eta landare mozorroak jantzita jarraitu eben martitzeneko Udaleko osoko bilkura: AH Tak herriko landaredian eta faunan eragiten dauen "triskantzaren aurrean", Udal Gobernuari orain bi urte egin eben legez konpromisoak eskatzeko baliatu eben protesta simbolikoa: batzar aretoaren ikusleen lehenengo jesarlekuak tomate, azenario, behi eta ardi jantzitako herritarrek bete zituen.

Udalbatzarreko galdera eta eskarien tartean, ozen irakurri eben idatzian salatu ebenez, "bi urte dira, 2007ko abenduan, udal-

batzak AHTaren inguruan aurkeztutako mozinoa onartu ebala".

Idatzi haretan esaten zena mahai-gaineratu gura izan eben AHT Gelditu Elkarlanekoek: "Berbaldi, informazio banaketa eta abarren bitartez, proiektuaren gaineko parte-hartzea bultzatzea" eskatzen eban, gogoratu dabenez, ezker abertzaleko zinegotzien aldeko bozkagaz, jeltzaleen kontrakoagaz eta Talde Independientearen abstentzioagaz aurrera egin eban mozino harek.

Bestetik, "proiektua aurrera daren instituzioekin ez kolaboratzea" jasotzen ebala idatziak gogorarazi deuse zinegotziei.

Administrazioari bestelako garraio politika bat martxan jartzea eskatzen eutsan orain bi urteko abenduan AHT Gelditu Elkarlanak Udalari aurkeztutako idatziak. Hain zuzen be, idatzi haretan jasotako "konpromiso bakar bat be betetzen ez dauela ikusirik", gaia berriro udalbatzarrera ekarri eta konpromisoak eskatzeko beharra ikusi dau Elkarlanak. ■ I.E.

Orain urte bi, 2007ko abenduan, hartutako "konpromisoak ez betetzea" egotzi deusie Udal Gobernuari

Abenduaren lehenetik aurrera medikuak Matienako Osasun Zentroan artatuko dituela esanaz euren etxeetan jaso daberen gutunaren inguruan Gobernu Taldeari azalpenak eskatzera bertaratutako hainbat abadiñarrek bete-bete egin eben, joan zen martitzenean, pleno aretoa. Osasun zerbitzu publikoa euren auzoko zentroan jasotzeko eskubidea aldarrikatzera eta, Osakidetzak Matienako zentrori bideratu

Jagokoz Osakidetzako arduradunari herritarren ezinegonaren barri emongo deusala dino alkateak

Abenduaren lehenetik aurrera be medikuarenera Zelaietara joaten jarraituko ei dabe

dituen arren, abenduaren lehenetik aurrera be Zelaietara joaten jarraituko dabela adieraztera joan ziren Udalera. Herritarren berbatan, hamarkadetan herrian izan daberen zerbitzua kentzea "onartezina" izanik, Gobernuari "erantzunak" eskatzera joan ziren. Zerbitzua goizez eta arratsaldez egotea proposatu eben irtenbide legez.

Jagokoz Osakidetzako arduradunari herritarren egonezina helarazteko eta irtenbidea eskatzeko batzarra egiteko konpromisoa hartu eban alkateak. ■ I.E.

Azaroaren 21eko Gazte Eguna

Urteroko hitzordua izan eben azaroaren 21ean gazte independentista abadiñarrek. Berbaldia, trikipoteoa, bazkaria, kalejira, ekitaldia eta kontzertuak izan zituen, besteak beste.

Gazte Egunaren egitarauaren barruan, bestalde, Durangaldeko musika taldeen "maratoia" be egin eben, arratsaldean hasita: Pixontxis, Daltondarrak, Stand By, Gazte Itzala, Namek Planet eta Disorders taldeak eta Bull Dj-a be aritu ziren.

IZURTZA

Trafikoa herrigunetik aldentzeko modu egokienaren bila

Saihesbideari jagokonez, Lurralde Zati Planari eginiko alegazioak aintzat hartu ditu Aldundiak

Bizkaiko lurralde antolamenduarien datoen 16 urteetako garapeneren aurreikuspenak jasotzen dituen Lurralde Zati Planari jasotako saihesbidearen ibilbideari Udalak egindako alegazioak onargarriak izan leitezela erantzun dau Bizkaiko Aldundiak.

Ballarin: "Saihesbidearen ibilbide alternatiba biak egingarriak direla erantzun deusku Aldundiak"

Herrigunetik igarotzen den trafikoa txikitzeko funtzioa izango dauen errepidearen ibilbidea oraindino zehazteko dagoela eta "Udalak egindako ibilbide proposamenak proiektuan gauzatu leitezela" erantzun dauela Aldundiak jakinarazi deuskue Udalean:

hasierako Zati Planari jasotzen ebana baino herrigunetik aldentuago igaroko litzake Udalak alegazioan proposatutakoa. Saihesbidearena "borondate politikoa araberako gaia" dela eta proiektua burutu ahal izateko lanean jarraituko dabela nabarmendu dau Udalak.

Jeltzaleek Aldunditik jasotako erantzuna noiz egingo daberen publiko galdetu dabe, eta Aldundiaren dokumentuak jasotakoak ez daukala "saihesbide izaerarik" azpimarratu: "Ez da saihesbide bat, bide urbano bat baizik". ■ I.E.

Aldundiaren dokumentuak jasotakoak ez daukala "saihesbide izaera" nabarmendu dabe jeltzaleek

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Betikoak flexografía

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA

Altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko **PREZIO IZARRETAN**
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari gainera
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko




**SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA**

**DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KONPROMISORIK GABE**

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

BERRIZ



Asteon amaitu ditue boulderra hormara josteko lanak.

Boulder barria ez jake "bape gustatu" Amaraune eskalada taldeko kideei

Hasiberriendako ondo ei dago, baina eskalataile arituendako "inklinazioa falta" ei jake

Amarune eskalada taldeari ez jake "bape gustatu" asteon ipintzen amaitu dabene boulderra. Hainbeste urtean herrian eskalatzeko gune baten zain egon ondoren, egokitutako boulderragaz ez dagoz pozik, zailtasuna falta jakola uste dabelako: "Inklinazioa falta jake, eta eskalada munduan esperientzia daukan jendearendako ez da egokia; probetxua aterako deusagu, bai, baina ez da itxaroten gengozena", kexatu da Iban Estebez Amarauneko lehendakaria.

Iban Estebez: "Probetxua aterako deusagu, bai, baina bost urtean itxaroten egonda ez da itxaroten genduen"

Udalak proposamen bi aurkeztu eutsazen Amarauneri. Eskalada taldeak "bat aukeratu eta Udalak bestea ipini dau, guk aukeratutakoaren aurrekontua handiegia zelako".

Etekinik handiena hasiberriek atarako deusiela uste dabe Ama-

rauneko kideek. Dagoeneko guraso batek baino gehiagok erakutsi dau bere interesa: "Ikastaroak antolatzea ideia ona da, baina gu ez gagoz kualifikatuta. Asmoagaz aurrera segitzea erabakitzen badogu, Federezinoan edo beste nonbait horretan aditua den norbait bilatu beharko dogu".

Gaztetxearen azpialdeko erakinean atonduetako rokodromoaren kudeaketa Amaraunek eroango dau. Hori gestionatuko dauen araudia Udalera eroan dabe, oneritzia jasotzeko. Asteko egun denetan 08:00etatik 22:00etara erabilgarri egotea da proposamena. Bazkide zerrenda bat egingo leukie, eta bakotxari txartel elektronikoa bana emongo leuskioe. Modu horretara, txartelean gordeta geratuko litzateke nork, noiz eta zenbat denboran erabili dauen azpiegitura barria. ■ J.D.

Probetxurik handiena "eskalatzen hasiberriek" aterako deusiela uste dabe Amarauneko kideek

DURANGO

EBPN barriak ekintza kopurua bibidertuko dau

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi barria (2009-2012) onartu dau Udalak, PP ezik beste taldeen aldeko botoekin. Euskararen Aholku Batzordean landu eta aurkeztutako planak 128 ekintza batzen ditu, 2005-2008 urteetako ekintzak bibidertuz: 65 ekintza egin ditue, %95eko betetze-mailagaz; euskara sustatzeko ekimenetan 1,4 milioi erabili dira. 10 lan esparru daukaz planak.

EAJ, Talde Mistoa, PSE-EE, Aralar eta EB-Berdeek egin dabe alde; PPK kontra

EBPNagaz bat datoz EB-Berdeak, eta Jaurilaritzaren laguntza itxaroten dabe. Aralarrek "errealitatea paperekoa baino askoz gordinagoa" dela gogoratu dau. Helburuak zenbateraino bete diren baloratu eta Udalaren konpromiso zehatzak eskatu ditu. PSE-EEek, barriz, EBPNaren helburua, euronalez, "euskaraz bizi gura dabenezin, tresnak jar-tzea" dela dino, eta, Talde Mistoa ekintza eta parte-hartze maila aitatu ditu; 2010erako ebaluzioa b eeskatu dabe.

EAJk egindako lan "sakona" eskertu dau, eta laguntza euskarrai "handiena" emotea "oso logikoa" deritzoe, "menpeko egoeran dago-eta". PPrentzat "aurrekoaren filosofia eta akats berberak daukaz, elebitasunaren kontrako zentzubako ekimenak". ■ A.B.

ELORRIO

Hiri Antolamendurako Plana jendaurrean aurkezteko eskaera

EAJ eta PSE-EEren mozinoa atzera bota eben ezker abertzalearen botoek

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren gainean eztabaidatzeko eta jendaurreko erakusketara onartzeko beharra plazaratu eben EAJk eta PSE-EEk, joan zen barikuko ez ohiko udalbatzarrean elkarregaz aurkeztu eben mozinoan. Ezker abertzalearen kontrako botoekin, mozinoak ez eban aurrera irten. Elorrioko Herritarren Aukerako zinegotzia ez zen ez ohiko udalbatzar horretan egon.

Ana Otadui EAJko zinegotziak Gobernu Taldeak ez dituela iragarritako epeak bete salatu eban: "Abuztuaren 6an EAJkook Gober-

Ana Otadui: "Mozinoaren helburua egoera desblokeatu eta tramitazioan aurrera egitea izan da"

EAJk Udalean dituen bost zinegotziek eta PSE-EEkoak aurkeztu eben mozinoa

nu Taldeak aurkeztutako proiektua geure egin genduen, garrantzitsuena une horretan ahalik eta akordio zabalena lortzea zelako".

Ondoren, iraileko batzarrean "dokumentua publikoki erakusteko akordio proposamena aurkeztekotan" geratu zen Gobernu Taldea. Harrezkero ez dabela mugimendurik somatu salatu eban, nahiz eta "abuztuaren 27rako dena prest zegoen, 13 zinegotzietatik 12 ados gengo zelako". Eta horregaitik aurkeztu eben mozinoa, "egoera desblokeatzeko eta tramitazioan aurrera egiteko". ■ J.D.

MALLABIA

LTD deskodetzaileak eskuratzeko laguntzak

Udalak LTD sistemara egokitzeko aparailuak jarriko ditu ezindu eta edadetuen esku

Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) aro barrira egokitzeko sasoia heldu dela-eta, Mallabiko Udalak deskodetzaileak eskainiko deutsez herritarrei. Sistema digitala ezartzean herritarrek telebista zerbitzu barik ez geratzea da helburua.

Aparailua lortzeko honako baldintzetako bat bete beharko dabe, gitxinez: 80 urte edo gehiagotzatea; 65 urte edo gehiagotzatea, baina II. edo III. menpekotasun maila edo handiagoa izatea; entzumen edo ikusmen ezindua izatea, %33ko edo gehiagoko ezintasunagaz.

Ezaugarri horreetariko bat egiaztatu beharra dago familia bakotzak aparailu bat lortu ahal izateko.

Udalak martxan jarriko dauen ekimen horren inguruan informazio gehiago gura dabena Udaletxeko Ongizate Sailera jo leike, abenduaren 18a baino lehenago. ■ P.M.

Laguntza jasotzeko Udaleko Ongizate Sailera joan beharko dabe abenduaren 8a baino lehenago

35 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Piruarekin egin daitezkeen paperik onenak

Eta azkenik paperezko zakurik ederrenak!



MAÑARIA

Inbertsinorik jasotzen ez dauen aurrekontua 2010erako

“Egoera ekonomikoa aintzat hartuta” osatu dauela aurrekontua dino Udalak

Azaroaren 6an egindako udalbatzarrean onartu eben 2010 urterako Udalarren aurrekontua. Gobernu Taldeak jakinarazi deuskuenez, osotara, 607.000 euroko aurrekontua da.

Onartutako aurrekontuan adierazgarriena, 2010 urterako inbertsinoetarako ez dabela eze-lako diru-atalik aurreikusten da. Gobernu Taldeak egoera ekonomikoagaitik dela azaldu dau: “Krisia dela-eta, diru sarrerak nabarmen jaitsi dira Udalean, eta, ondo-

Osotara, 607.000 euro jasotzen dituen aurrekontua da azaro hasieran Gobernuak onartu ebana

Datorren urteko inbertsino nagusia Aldundiaren diru-laguntzagaz ordainduko dabe

rioz, aurrekontua krisi egoera horretara egokitu behar izan dogu”.

Gobernukoek dinoenez, datorren urtean zehar “oinarriko inbertsinoren bat suertatuz gero, soberakina izango geunke finantzazinarako”.

Durangotik etorrira herriko sarrerako bi kanteren artean, Bizkaiko Aldundiagaz irailan hitzartatako diru-laguntzagaz eta harrobi biekien adostu asmo dabenagaz finantzatuko daben biribilgunea da 2010eko lan nagusia. ■ I.E.



Biribilgunea eraikitze lanak dira 2010erako aurreikusitako proiektu nagusia.

ZALDIBAR

Neguko San Andres jaiekin bat egiteko gonbita asteburuan

Asteburu honetako San Andreseta jaietarako egitarauak prestatu ditue Gaztetxeak eta Udalak

Gaur iluntzeko Euskal Preso Politikoen aldeko kontzentrazioaren ondoren, 20:30ean egingo daben txupinaren jaurtitzegaz abiatuko ditue Gaztetxeok Neguko San Andres jaiak. Txupinazoa jaurti eta gero Gaztetxean izango den luntxaren ondoren, Durangoko Uxueren eta Iban zornotzarren kontzertuak izango dira, 22:30ean.

Zapatuan, azaroaren 28an, 22:30erako antolatu ditue gazteek eskualdeko Namek Planet, Disorders eta Talde Sorpresaren kontzertuak. Azaroaren 28an, bestalde, eguerdiko herri-bazkariagaz hasiko da Gaztetxetik San Andres jaietarako prestatu daben egitaraua. Bazkal ostean, barriz, familia-argazkia eta bakarrikzeta emanaldiak eta kantu-poteoa izango ditue Gaztetxean antolatutako jaiagaz bat egiten dabenek.

Udaletik atondutako San Andresetarako jai egitarauak be, gaur, bihar eta astelehenerako hitzorduak jasotzen ditu.

Asteburu honetan, Ilargi argazki taldeak antolatu dauen argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa egongo da Udaletxe zaharrean, eta Helmuga emakume taldeak, bestalde, Pintxoan Eguna antolatu dau gaurko.

Gaur 19:00etan Udaletxe bakoitxetik txupina jaurtitzen dabenezik, kirolak, musikak, antzerkiak, umeentzako jolasek zein gastronomiak beteko dauen egitaraua izango da jaietarako. ■ I.E.

Gaur iluntzean emongo deutsee herritarrek San Andres jaietara

Euskal trikitilari gazte onenen arteko finala

Kanporaketa saioak azaroaren 1ean eta 8an izan zituen Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XVIII. txapelketak, eta azaroaren 29an Olazar frontoian izango da finala. Ohitura denez, eta 1983an lehenengoz egin zen moduan, Zaldibarren lehiatuko dira pandero eta trikiti-jotzaile gazte onenak Euskal Herriko txapela nork jantziko: azaroaren 29an, 17:30ean hasita arituko dira dakien onena erakusten.

Euskal Herriko trikitilari onenaren txapela eta 330 euroko saria zein bikotek hartuko dauen erabakitze

Eneritz Bengoetxea donostiarrak eta Edurne Errandonea andoaindarrak osatutako bikoteak irabazi eban igaz azken urteetan parte-hartzaile gehienak gipuzkoarrak izan dituen txapelketa. Domekako finalean, Bizkaiko trikitixa ondoen jotzen dauen bikoteak sari berezia izango dau, ohitura denez. ■ I.E.

Tokiko Agenda 21: herriko hainbat gai lantzeko gune

Udaletxean egin zen batzarra, atzo iluntzean

Igazko azaroan egin eben Tokiko Agenda 21 foroaren barruko azken batzarra, eta urtebeteren ondoren, atzo iluntzerako deitu eben herriaren etorkizunari jakogozen askotariko gaiak jorrazteko hurrengo batzarra. Udalbatzar aretoan izan zen atzoko hitzordua.

Igazko azaroko batzarrean parte-hartzaileek epe luzean aurrera eroan beharreko legez sailkatu zituen hainbat gai jasotzen zituen atzoko batzarra.

Besteak beste, herrigunea zeharkatzen daben autoen abiadura kontrolatzeko sistema egokia bilatzea, garraio publikoaren zerbitzua indartzeko neurriak hartzea, liburutegi zerbitzua hobetze-

ko modua egitea, 3 eta 6 urte artekoentzako eskola txiki zabaltzea, eta herriko airearen kutsadura aztertzea dira atzoko moduko herri-batzarretan, herritarren parte-hartzetik jasota, Udalak aurrantzean lantzeko dituenak. ■ I.E.

Igazko azaroan egin eben Tokiko Agenda 21 foroako atzokoaren aurreko azkeneko batzarra

Herrigunea zeharkatzen daben autoen abiadura kontrolatzeko sistema

GARAI

40 lagun batuko dira biharko bertso afarian

Bertso afaria antolatu dau biharko Garaiko Udalak, eta 40 lagun inguru batuko dira mahaiaren bueltan. Aste honetan amaitu da izena emoteko epea.

Iluntzeko 20:30ean motorrak berotzeko hitzordua ipini dabe: poteoa egingo dabe trikiti soinuaren laguntzagaz, herriko tabernetan zehar. Horren ondoren hasiko da afaria, Otea-Loran elkartearen.

Afariaren ondoren bertsoen txanda ailegatuko da; Igor Elortza eta Miren Amuriza izango dira biharko protagonistak.

Hirugarren urtez

Hiru urte dira bertso afaria antolaten hasi zirenetik. Aldundiaren laguntzagaz, Udalak urtean zehar prestatzen dituen kultur ekitaldien barruan dago ekimen hau. ■ M.O.

PRAKTIKAK EUROPAN. EPEZ PROIEKTUKO IV deialdia

- Norentzat: **UPV-EHUko titulatu berriak diren eta Bizkaian erroldatuta dauden pertsonentzat.**
- Beka-kopurua: **45**
- Herrialdeak: **Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Portugal eta Txekiar Errepublika.**
- Eskara-orriak eskuratzeko lekuak:
 - **Bizkaiko Campuseko Enplegugunean edo www.ehu.es/enplegugunea web gunean.**
- Informazio gehiago:
 - **Durangaldeko Beharginzian edo orientazioa.mdurango@bizkala.org-en**

Izena emateko epea:

- **Bizkaiko Campuseko Enplegugunean: 2009ko abenduaren 4a arte**

Informazio gehiago Durangaldeko Beharginzian

www.amankorru/naztoa.com

ZALDIBAR

Zegozenean itzi ditue Udaleko tasarik eta zergarik gehienak

Udal Gobernuaren proposamenaren kontra bozkatu eben jeltzaleek



Frontoiaren erabileragaitiko tasa da aldaketa jasango dauenetako bat. I.E.

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengaitiko tasa eta zergen datorren urterako zenbatekoak zegozenean iztearen alde bozkatu eben, joan zen asteko udalbatzarrean, Gobernu Taldeko zinegotziek. Orokorrean tasa eta zergak zegozenean iztea jasotzen dauen proposamenak, baina, salbuespen bi izango ditu.

Batetik, frontoiaren erabiltzaileek ordaintzen daben tasan, orain arte jaso barik zegoen bereizketa egin dabe. Orain arte, frontoia erabiltzeagaitik—dutxa zerbitzua baliatu zein ez—10 euroko tasa ordaindu behar eben erabiltzai-

Frontoian dutxak erabiltzen ditueenek 12 euroko tasa eta erabiltzen ez ditueenek 10 eurokoa ordainduko dabe

OTXANDIO

Ados jarri dira SGAE eta Udala

SGAEk eta Udalak irtenbide negoziatua emon deusie epaitegietan zeukien auziari. Egileen eta Editoreen Elkarteak hasieran eskatzen zituen 11.500 euroak barik, 8.700 ordainduko deusaz Udalak azkenean.

SGAEk fakturazino bi eskatzen eutsazen Udalari: Santa

leek. Datorren urtetik aurrera, baina, dutxa erabiltzen dabenek 12 euroko eta erabiltzen ez dabenek 8 euroko tasa ordainduko dabe.

Gainerako zerga eta tasa guztietan "izoztea" jasotzen dauen proposamenaren bigarren salbuespena, ibigailuen zergan egin dabe: potentzia gitxieneko autoen zergetan ez da datorren urtean igoerarik egongo, eta potentzia gehieneko autoen jabeek aldiz, %12 eta %17 arteko karga igoera ezarri deutsee. Cobos alkatearen berbatan, "gitxi kontsumitzen daben autoen erabilerak bultzatzeko" neurria da aitaturakoa.

Gobernuaren tasa eta zerga proposamenaren kontra bozkatu eben jeltzaleek, euren berbatan, "bi urte daroaguz zergak eta tasak izozteko eskatuz; egin dabena ez da izozte erreala". ■ I.E.

Mañaiko eta Mekoletako jaietakoak. Mekoletako jaiak Arkotxe kultur elkarteak antolatzen ditu, eta "SGAEk onartu dau kultur elkarre bat dela eta guk ez dogula hangoa zertan ordaindu", azaldu dau Aritz Otxandiano alkateak. Santa Maña be kultur elkarte da, baina herriko jaiak antolatzen ditu eta "auzia ez zen hain erraza". Beraz, Santa Mañetako faktura Udalak ordainduko dau; Mekoleta jaietakoak, barriz, Arkotxek. ■ J.D.

I. Kantu Jaialdia abenduaren 3ko Euskara Egunean

Marixurrike aisialdi taldeak bultzatutako ekimena da abenduaren 3an Apatan izango den lehenengo Kantu Jaialdia. Euskararen egunean—abenduaren 3an, 18:00etan—Apatako plazan izango da hitzordua. Azaldu dabenez, eskolak, dantza taldeak, gaztetxeko kideek zein udal txetxeak be parte hartu dau Euskara Egunean herritar guztiak "tradizinoako kantak berreskuratzera" gonbidatu dituen ekitaldia antolatzen.

Liburuxkak

Azaroan zehar eskolan zein ludotekan jardun dabe umeek kantak ikasi eta prestatzen, eta helduekin kantuak entseatzera Antton bakarlari elorriarra etorri jaken atzo Atxondora.

Herritar guztiak gonbidatu ditue abenduaren 3ko zitara: kanten letrak jasotzen dituen liburuxka banatuko dabe horretarako, eta txokolatea banatuko dabe kantaldiaren ostean. ■ I.E.

Lehenengoz antolatu dabe aurten Kantu Jaialdia, herriko hainbat talderen elkarlanagaz

DURANGO

103 urte bete ditu Rosariok, uriko andrarik nagusienak

Rosario Isacelayak, Durangoko andrarik nagusienak, 103 urte bete zituen joan zen azaroaren 24an. Udal ordezkariak zorionak emon gura izan eutsiezen, eta Gizarte Ekintzako teknikari Maria Villarren eta Marijose Balier alkate ordearen eskutik lore-sorta jaso eban. Bestalde, azaroaren 19an, 100 urte betetzea ospatu eban familiagaz Alde Zaharreko Andresa Gonzalez de Audikanak. Auzokoe be zoriondu eben, Durangoko Alde Zaharra elkarte (DAZ) eta Udaleko ordezkariak ez eze.



Durangoko Udala

Urritasunaren Nazinoarteko Eguna ospatuko dau Geu Bek

Premina bereziko familien Geu Be elkarteak Ez gaitzazu araro begiratu lelopean ospatuko dau Urritasunaren Nazinoarteko Eguna, abenduaren 3an. "Hainbat urritasun motak jotakoen errealitatea hurbilduko" dabe, Andra Mariko elizpean, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Goizean ginkana, mahai-ingurua eta errubera-aulkien zirkuitua izango dira. Bazkalostean, aerobic saioa, 'berdintasunaren aldeko golaren porteria', umeentzat tailerrak, animazinoa, txokolatea... Egun osoan, irudi eta erakustoki informatiboak jarriko ditue.

IURRETA

Gaztetxeak 10 urte ospatu ditu



Gaztetxea

Gaztetxeak 10 urte bete dituela ospatu eben asteburuan herriko gazteek. Kontzertua, antzerkia eta bazkaria antolatu zituen, besteak beste, Gazte Asanbladak, "hainbat gora-behera izan arren, Gaztetxeko kondairak aurrera darraiela" erakutsi guran. Hainbat gaztek parte hartu eban.

Liburutegia itxi behar izan dabe

Udal Liburutegia itxita daukie eguaztenetik hasita abenduaren 8a bitartean herritarrek, aire girotuan egin beharreko behar batzuk direla-eta. Halaxe jakin eragin dabe udal arduradunek. Ibarretxe kultur etxeko gainerako zerbitzuak, baina, erabiltzeko prest dagoz, azaldu dabenez.

Gabonei begira lehiaketak antolatu ditue Udalak eta +Dendak elkarteak

Aurten be antolatu ditue Gabonetako Postalen eta Olentzeri Gutun lehiaketak Iurretako Udalak eta +Dendak elkarteak; baita erakustoki lehiaketa be. Adinaren arabera sailkatuta, Iurretako edo bertan ikasten daben 13 urte arteko zuzendutakoak dira lehenengo biak—izena emoteko azken eguna abenduaren 24a—, eta hirugarrena herriko komertzio zein ostalaritza establezimenduei—izen-emotea, abenduaren 18a arte—. Ibarretxe kultur etxean eskuratu leitekez baldintza-orriak.

BERBAZ >

“Krisiaren eraginez, geroago eta jente gehiagok behar dau laguntasuna”

Durangon eta Iurretan bizilekua daukien 150 familiari laguntza eskaintzen dabil JAED elkarteak



Iñaki Gorritxategi •

- JAED elkartekoa
- Durangarra

Gabonak gertu dagozen seinale izaten da JAEDen standa Andra Marian jarrita ikustea. Preminan dagozen Durangoko eta Iurretako familiei laguntzea helburu dauen elkarteak eskualdean krisiak gogor eragin dauela azaldu deusku. Beharizanean dagozen familia denei erantzuteko gogotsu lan egiten dabe. Gabonetako errifa diru iturri garrantzitsua da elkartearentzat.

JAEDen errifagaz batzen dozuena baino gehiago beharko dozue.

Geroago eta jente gehiago dago beharizanean. Krisiak eskualde osoan gogor eragin dau. Udalak diru-laguntza igo deuskun arren, oraindino gehiago behar dogu premina egoera honi aurre egiteko.

Zer laguntza eskaintzen dozue?

Janari eta arropagaz laguntzen dogu gehien. Durangon eta Iurretan 150 familiatik gora laguntzen gabilz. Ume pilo dago etorkinen artean. Alargunek pentsino apalak daukiez, eta seme-alaben ardura daukie. Pertsonekin gabilz, bardin jaku nongoak diren.

Zelan banatzen dozue laguntza?

Langile bat daukagu elkartearen jenteari harrera egiteko. Pertsona horrek gizarte-laguntzaileagaz be hartu-

emona dauka. Janari aldetik olio, lekak, pasta, garbitasunerako produktuak... banatzen doguz. Astean bi egunetan prestatzen da janaria banatzeko. Emoten dogun janaria baloratu egiten dogu, eta azkeneko hileotan gora egin dau. Janaritan bakarrik, urrian 5.000 euro banatu genduzen.

Janaria eta arropak zelan lortzen dozue?

Eroskin egoera onean dagozen baina salgai jarri ezin ditueen produktuak jasotzen doguz. Janari hori begiratu egiten dogu banatu aurretik. Orain, aurre egin behar deusagun preminari erantzuteko emoten deuskuen horregaz nahikoa ez daukagunez, erosi egin behar izaten dogu. Elikagai Bankutik be jasotzen dogu. Arropa aldetik, joan zen denboraldiko arro-

pa emoten deuskue. Jenteak be ekartzen deusku arropa.

Isileko lana egiten dozue.

Guretzako diskrezinoz lan egitea lehentasuna da. Etorkin askori laguntzen deusagu, baina bertakoei be bai. Bat-batean beharizana daukana guregana hurreratzea gatxa izaten da. Gure artean ez dogu izenik aitatzen. Konfiantza herriko jentearen artean sortu gura dogu. Diru-laguntzak be banatzen doguz.

Zenbat lagun zagozie elkartearen?

Taldeak sortuta daukaguz, lana geure artean banatzeko. Guztira, hogeit hamar lagun inguru gabilz beharizan. Jentea ondo atenditzen dogu.

Errifa laguntza handia da?

Diru-sarrera handiena emoten deuskuna standa da. Halan be, aurten ez dogu txartelen prezioa igo gura izan. Diru gitxien daukienez be parte hartu daien gura dogu.

Zenbat txartel?

Aurten 60.000 txartel salgai jarriko doguz Durangoko

“Janaritan bakarrik, urrian, 5.000 euro banatu ditu elkarteak”

“Aurten ez dogu errifako txartelen preziorik igo, denek parte hartzeko”

“Gure errifan punterengo teknologiadun sariak jartzen doguz”

standean. Ekimen honegaz, elkarteak dirua irabazteko den denak saldu behar ditu. Jenteak parte hartuko dauelakoan gagoz.

Aurten be kotxea errifako izarra izango da.

Sarien artean punterengo teknologia egon daiten gura dogu, denendako erakargarria izan daiten zozketa. Kotxeaz gainera, ordenagailuek be azken teknologiak ditue.

Standa itxuraldatuta ikusi dogu.

Pintatzen hasi beharrean graffiti bat egin zeitekela pentsatu genduen. Durangoko Graffiti Lehiaketan parte hartu eben Gasteizko gazte batzuekin Udalaren bitartez hartu-emonean jarri ginen. Herria eta bertako txokoak erakutsi geuntsazen, eta lanari ekin eutsien. Emaitzagaz pozik gelditu ginen.

Noiztik zabilzie standa jartzen?

Zozketa hau Ospitalak egiten eban lehen. Orain hamabi urte, zozketa egiteari itzi eutsien, eta orduan JAEDek tradizioagaz jarraitzea erabaki eban.

Noiz sortu zen JAED?

Elkarteak 46 urte egin ditu dagoeneko. Ibilbide luzea daroa herrian. Beharizanak nabarmen gehitu dira, eta laguntza hori eskaintzen saiatzen gara. ■ J. Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Artzain Eguna izango dabe Durangon, bihar

Trantsumantzia gogoratuz, lurreta eta Durango 150 ardik zeharkatuko dabe

Urruneko larre-aldaketa gogora ekarriz, 150 ardik Durango eta Iurretako hiri-guneak zeharkatuko ditue, zapa-tuan. +Dendak elkartearen 25. urteurren ekitaldien barruan eta artzainak omenduko dituen Artzain Egunaren barruan egingo dabe hori. Merkatarien, Erralde hiltegiaren eta Ardi-latxa-azienda Hazleen Bizkaiko Elkartearen (ACOL) eskutik burduntzian 98 Bizkaiko Bildots erreko ditue —txartelak banatuko dira +Dendakeko bazkide diren establezimenduetan—, eta Oscar Santacoloma sukaldariak egindako '+Erralde' pintxoak aurkeztuko dabe.

Bizkaiko 100-150 ardik Iurretako herrigunea zeharkatuko dabe,

11:00etan. Gero, Durangorako bidea hartuko dabe Alde Zaharre-raino. "Artzainek tradizionalki izan-dako garrantzia eta orain be euren lanak gizartean daukan eragina" goratu gura dabe Artzain Egunean.

Hainbat ekitaldi

Andra Marian hasiko diren artile tailerrekin hasiko da eguna,

Ardi-latxa-azienda Hazleen

Bizkaiko Elkartek, Erraldek eta +Dendak-ek eratu dabe, azken honen 25. urteurrenaren haritik

10:00etan; eta, 14:30ean (19:00etan be bai), Bizkaiko bildotsagaz eta ardi esneagaz egindako '+Erralde' pintxoak eskainiko dabe Udaletxe-ko plazan; 1.000 pintxo eta 500 bildots-txuleta. Ardi-latxa erakustaldia 17:00etan hasiko da, eta kale-jira 20:30ean. Gaur be, 19:00etan, +Dendaken egoitzan berbaldia emongo dau artzain batek.

Aurkezpenean +Dendakeko Xabier Zelaia, Erraldeko lehendakari Jabier Azpitarte eta Ardi-latxa-azienda Hazleen Elkarteko lehendakari Jabier Aldekoa izan dira; Bizkaiko Bildotsaren mahaian Erralderen ordezkari be badenak hiltegiaren lana nabarmendu dau: "Prezioak adosteko dogu, bildotsa saltzeko, oparitu beharrean". ■ A.B.

Lehiakortasun Gunea finkatu gura dabe Durangaldean

Bizkaiko Foru Aldundiak 90.000 euroko diru-laguntza emon deuto Durangaldeko Enpresa Elkarteari, enpresa Lehiakortasunerako Gunea sortu daian. Gune horren helburua Durangaldeko enpresen sarea "eraldatzea" da, eskualdeko enpresen lehiakortasunaren eta garapenaren alde egiten diren ahalegin guztiak bilduz: "Industria arloko etorkizuna finkatzeko eta bermatzeko beharrianei erantzun bateratu bat emotea da asmoa".

Ekonomia Sustapen Saila ekimen honen aldekoa dela azaldu dabe Aldunditik, enpresa barriak sortuz eta dagoenak dibertsifikatuz, berrikuntza eta garapen teknologikoan bultzada barri bat emon gura dabelako. "Produktu barriak garatu, merkatu barriak identifikatu eta teknologia barriak aplikatuko ditue".

kolaborazioa



Mauricio Garcia UGT sindikatua

Elkarrizketa soziala Euskadin

Espainia osoan etengabe ko elkarrizketa soziala eman den bitartean —greba orokorreraino heldu diren gorabeherekin bada ere ez da inoiz sindikatuekin eseri, ezta negoziazio mahai sektorialik sortu ere. Azkenean, gobernu aldaketa batekin posible izan da, indar sindikal batzuek mahaian eseri nahi ez duten arren.

Elkarrizketa horri esker, hiru mahai sektorial sortu dira: Lana eta gizarte politika; Lan osasuna; Enplegua, politika aktiboak eta giza-kapitala. Horiek horrela, lehenengo akordioek ez dute luze jo, eta formakuntza eta lan osasun arloan sinatu dira.

Formakuntzari dagokionez, sinatu den akordioarekin laguntzen inguruko aurreko neurria berritu da EREren batek kalteturiko langileentzat, erakargarriago eginez eta pizgarri ekonomiko handiagoarekin; 20 ordu gutxieneko 6 ikastordutara igaroz, gehienezko ordu kopurua 160tik 270era eta hilabeteko 600 euroetatik 800era. Lehenago, gainera, enpresaren plan batekin lotuta zegoen formakuntza; orain individualizatua da eta EREaren bilakaeraren arabera.

Lan osasun arloan ere hainbat akordioetara heldu gara; zehazki, lehenasunezko diren ekintza estrategia batean, zazpi jarduera eta hogeita hamar neurritan ardazturik: Formakuntza ekintzak; Kudeaketaren integrazioa; Kontzientziazioa; Inspektzioa eta kontrola; Informazioa eta sistemak; Instituzio arteko konpromisoak; Ikerketa. Horiekin batera, prebentzioarako estrategia praktikan jartzea erabaki da, istripurik gehien gertatzen ari diren arloetan bereziki.

UGTk ongietorria egiten dio elkarrizketari, eskualdeko udal guztiak adibidea jarraitu dezaten espero duelarik. Ekimen guztiak dira onak, ematen ez diren haiek izan ezik.

* Erredakzioan itzulia

'Traktorada' nekazaritza eta abeltzantza krisia salatu guran

Traktore ilarak eskualdea zeharkatu eban joan zen barikuan. EHNE sindikatuak deitutako 'traktorada' honen bidez, "nekazaritza eta abeltzantza sektore guztietan dagoen krisia" ezagutzera emon gura izan eben. Gainera, azaroaren 21ean COAG estatu mailako koordinakundeko beste sindikatuekin batera Madrilan egindako manifestazioan parte hartu eben.

EHNEk gogor kritikatu dau "inposatutako politika neoliberalek" merkatuaren arautze eza dakartela industria translazionalen negozioa bultzatuz: "Nekazaritza politikak aldaketa sakona behar dau. Behatokia lehenbailen martxan jarri behar da. ■ J.G.



Eskualdeko baserriarrek traktoreak kalera atera zituen joan zen barikuan.

> DURANGO

'Slow Food' mugimendua bultzatu gura dau Erraldek

Erralde hiltegiak gizarteari eta politikariei Slow Food nazinoarteko mugimenduaren aldeko apustua egin daien eskatu deute: "Euskal gizartea okelaren multinazionalak bultzatutako fast foodaren kontrako inflexino puntua izan beharko litzateke".

'Agusto'

BECen abenduaren erdialdean martxan jarriko den Slow Food azokan izango da Erralde. Algusto azokan parte hartzeko hiltegi-

lau idi hil zituen atzo. Idi horreetako bi Berrizko Txuletoia marka komertzialagaz errekorra hausten saiatuko dira (Juan Mari Ordorika Gernika Lumoko baserriarrenak). Beste biak Betizu arrazakoak dira (Zaratamoko Eugenio Arriagarenak). Lau abelburuen txuletoiak eta Erraldetxoak azokan dastatzeko jarriko ditue. Slow Food mugimendurekin bat eginez, "kalitateko produktuen aldeko apustu" egiten dauela azaldu dabe Erraldekoek. ■ J.G.



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

KULTURA[>]



Argazkia: Ana Dominguez

MUSIKA>EMANALDIA

'La leyenda del beso' zarzuela Durangon

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolak eta Udalak antolatutako emanaldia izan zen, domekan, Durangoko Landakogunean. *El caserío*, *El manojo de Rosas* edo *Katiuskazarzuelak* aurreko urteetan izan ondoren etorri da *La leyenda del beso* Landakogunera.

Durangoko XX. Musika Hamabostaldiaren barruko azken aurreko emanaldia izan da San Agustín Kultur Guneak produzitu eta Bartolome Ertzilla musika eskolak antolatu duten hau.

Andeka Gorrotxategi abadiñarra antolatzaileen artean izan duen *La leyenda del beso*, XX. mendeko zarzuelarik ezagunenetarikoa dena ekarri du Sasibil elkarteak

oraingoan Durangora; 1924an Madrileko Apolo antzokian estreinatu zutena.

Mario izeneko kondearen eta Amapola ijitoaren arteko maitasun istorioa da ikuskizunaren hari nagusia. Gaztelako gaztelu batean hasten da istorioa.

Amapola ijitoak erakarrita ijito talde batek bere gazteluko lurretan kanpatu daian baimentzen du Mario kondeak, eta orduantxe hasten da *La leyenda del beso*.

Bi hamarkada bete dituen Durangoko Musika Hamabostaldiaren hurrengo eta azken emanaldirako, bestetik, Leioako konserbatorioko haurren taldearen, Leioa Kantika Korralaren emanaldia dugu azaroaren 29an. ■ I.E.

Mario kondearen eta Amapola ijitoaren maitasun istorio kantatua

12 Bertsolari Txapelketa Nagusia

Elortza, Amuriza, eta Iturriaga Durangaldeko bertsolariek asteburu honetan jokatu dituzte finalurrekoak. Gorka Lazkanok utzi digu asteburuko saio biei buruzko kronika.



13

I igo Bernedo argazkigilea

Zaldibarko Ildargi argazki taldeak antolatzen duen lehiaketan lehenengo saria jaso du, borrokalari Masai baten argazkiagaz, Iñigo Bernedo Belarrek.

PINTURA > ERAKUSKETA

Amaia Alonso durangarraren 'Lekuak' Andragunean ikusgai

Pinondoko Andraguneko hormetan dago Alonsoren lanen erakusketa



Lekuak izeneko erakusketan, Durangoko goiko argazkiko Andra Mariko irudi bat zein Durangaldeko mendi-lerroeren edo Untzilatxontorraren ikuspegi bat, edo, Gaztelugatxe eta Chillidaren *Hai-zearen Orrazia* agertzen dutenak, edo Txinako nekazalgune batekoak agertzen dira. Koadro bakoitzaren izenaren azpian, leku zehatz eta identifikagarri horiek egileari eragiten dizkieten sentsazioak laburbiltzen dituen esaldi bat dago: *Sinboloak* izeneko koadroak, esaterako, "pertsonen barneko lekua" esaldia du gehituta.

Hurbileko hainbat lekuren ikuspegiak agertzen ditu egileak

Azaro guztian zehar bisitagai ditugu Durangoko Pinondoko Andragunea espazioan Amaia Alondo durangarren *Lekuak*. Alonsok azken urteetan ladutako askotariko teknika eta materialekin egindako koadroen bilduma da azaroaren 30a arte Andragunean zabalik dugun erakusketa dagoena.

Alonsok bere lanak ikusgai ipintzen dituen lehenengo aldia da

Industria ingenieritzan diplomatu da Andraguneko hormak betetzen dituzten koadroen egilea; haurra zenetik pinturagaz lotura estua izan du Amaia Alonsok. Azaroan zeharreko hau da bere lanak erakusketa batean paratu dituen lehenengo aldia. ■ I.E.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Beti ez da domeka izaten



Joan dira finalaurrekoak Durangaldekoentzat, eta karta guztiak mahai gainean dagoz. Joan den zapatuan Gernikan eta domekan Iruñean egin ziren finalaurrekoetako bigarren itzuliko lehen bi saioak. Lehenengoan Igor Elortza eta Miren Amuriza aritu ziren kantuan, eta bigarrenean Unai Iturriaga. Ez zen denentzako suerterik egon, Gernikan Igorrek huts egin eban, eta azken urteetan ez bezala finalean kantatzeko aukera barik gelditu da. Mirenek oraindino ez dau finalean sartzeko aukera galdu, baina honek be,

Igorrek egin eban moduan, poto bat egin eban kartzelako lanean, eta horrenbestez asteburuko saioaren emaitzen zain egon beharko dau, finalean sartuko den ala ez jakiteko.

Umetako moduan kantetako asmoz joan zen Igor, libre libre, edo hori esan eban, behintzat, agurrean. Ahalegindu bai, baina ez eban lortu. Uste dot presinoak gainez egin eutsala, eta ez ebalasaiorenen lehenengo zatian diferentziak ateratzeko moduan kantau. Askok uste genduen kartzelakoan itxuratuko ebalasaiora eta puntu mordoxka bat batu ebalasaiora, baina ez eban gaia ondo uler-tu (izan be, neure ustez, behintzat, ez zegoan ondoegi formulatuta), eta, gainera, poto bat be egin eban.

Bere egunik ez eban eduki Igorrek, eta berak be agurrean argi esan euskun



entzuleoi, abenduaren 13an geure artean egongo zela, eta hori beretzat ohore bat izango dela. Alderantziz dela esango neuke nik, Igor: ohorea geurea izango da! Ez dira eta asko izaten porrota umiltasun eta klase horregaz onartzen dabenak. Pena bat izango da zu BECen kantuan ez egotea, baina dena ez da hor amaitzen, eta animo!

Miren, bere mailan ibili zen, dena emonez, orain arteko moduan, baina honi be kartzelakoan laprastegitea tokatu jakon eta poto egin eban berak be.

Dena dela, dena ez dago galduta, poto eta guzti be Miren finaleko postuetan dago oraindino, eta agian finalista legez ikusiko dogu Berrizko gaztea.

Domekan izan zen, ordea, albisterik pozgarriena. Iruñeko Anaitasunan jokatu behar zuen finalaurreko Unai Iturriagak, eta hasiera batean sailkatzea gatx samar ikusten bagenduen be, gura genduena ikusteko aukera emon euskun Unai. Lehen postuan amaitu eban saioa eta, gainera, atera eban puntu piloagaz finalerako sailkatzea lortu eban.

Deseroso samar zebilela emoten eban hasieran, baina 4ko handian soltatzen hasi, eta gora eta gora egin eban. Kartzelakoan be betiko Unai ikusi genduen: hiru bertso eder oparitu euskuzen istorio ezin ederrago bat osatuz.

Dagoeneko finalean dago Unai, eta Mirenek be badauka aukera, beraz, ia Durangaldeak, azken urteetan legez, ordezkari bi sartzen dituen finalean.

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal Gerediagako kidea

Odol urdineko iurretar gorria

Carmen Gurtubay Alzola Juan de Gurtubay eta Blanca Alzolaren alaba bakarra izan zen. 1910. urtean jaio zen Madrilan, eta gazte zelarik hil zitzaion bere aita. 1920.eko apirilaren 15ean bigarren aldiz ezkondu zen bere ama, Jose de Bustos Andriako dukearekin. Ezkontzako opari gisa, amak Iurretako markesaren titulua jaso zuen Alfonso XIII.a erregearen eskutik. Urte gutxitara amak bere alabari oparitu zion, Carmen Iurretako bigarren markesa titulua hartuz.

Gazterik Pablo Merry del Val bere lehengusuarekin ezkondu zen. Ezkontza hau ez zen ondo joan, eta Aita Santuaren dekretu batek balio gabetu zuen. Pablaren izeko zen Rafael Merry del Val kardinal ospetsua. Gaztaroan amazona eta golf jokalaria bikain gisa agertzen da egunkarrietan. Bere lana? Bere maila sozialeko neskena: festari festa ibiltzea. Baina barnean ez zituen ulertzen desberdintasun sozialak. Dirudienez odola gorritzen hasia zeukan.

1936an, gerra hasi baino egun batzuk lehenago, Angel Fernandez de Liencres Najerako markesarekin ezkondu zen, zibiletik, kanarietan. Zibilezkontza ez zen izan "oso gustukoa" bere inguruan. Gerra hasi zenean Bartzelonatik Parisera joan zen, eta bertan errepublikaren alde lanean aritu zen buru-belarri. Horren lekuko Irujo eta Jose Antonio Agirrrekin trukatu zituen gutunak eta abar. Gerra bukatu ondoren, hainbat arazo izan zituen Francoren erregimenarekin, eta epaitua ere izan zen. Bigarren mundu-gerran aliatuen aldeko espioitza lanak burutu zituen, bizi-tza hainbat bider arriskuan jarriz, eta Alemaniako polizia-erregimen hainbat atxiloaldi sufrituz. 1997. urtean Estatu Batuetako gobernua publikoki onartu zizkion merituak, Carmen espioitzan oso maila handiko ekin-tzalaria izan zela plazaratuz.

1948an John McKee-Norton amerikarrarekin ezkondu zen Parisen, eta hiri horretan hil zen 1959. urtean. Montparnasseko kanposantuan dago lurperatua. Jenny Bradley-k bultzatuta bere bizitzako oroimenak idatzi zituen, baina hil ondoren bere amak bahitu zuen eskuizkribua, eta familia oraingoz ukatu egin du argitaratzera.



ARGAZKIGINTZA > ELKARRIZKETA

“Natura argazki on batek lan handia izaten dau atzetik”



Canon argazki kameragaz bigarren bidaia egin eban udan **Iñigo Bernedo Belarrek** Kenyara. Hemen paisaia politak bai baina fauna aberatsik topatzen ez dauela-eta, hegoaldera joaten da animalien argazkiak egitera: www.ibbphoto.com helbidean ditu bere natura argazkiak guztiontzako ikusgai.

Herritarren saria jaso barri dozu Zal-dibarko argazki lehiaketan. Lehenengo aldia da parte hartu dozuna?

Azken urteetan beti aurkeztu izan ditut pare bat argazki, nire herrian antolatzen den lehiaketa delako. Irabazteko helburuagaz barik, argazki desbardinak erakusteko helburuagaz hartzen dot parte. Borrokalari masai baten argazkia da San Andreseko lehiaketan saritu deustena, Kenyako gizon zahar baten argazkia.

Bidaietarako argazki asko daukazu?

Bai, diapositiba artxiboetan hainbat bidaietarako argazkiak daukadaz, baina argazkigintza digitala lantzen hiru bat urte bakarrik daroat. Digitalera igarotzea oso aldaketa handia izan da. Uda honetan Kenyan izan naz argazkiak egiten.

Noiztik diharduzu argazkigintzan?

Argazkigintza serioago lantzen bi urte daroadaz. Igaz, esaterako, Islandian izan nintzen argazki-bidaia batean: natura argazkiak egitera joan ginen Islandiara. Bertan egindako argazki bategaitik Fotocam lehiaketaren aipamen berezia egin deuste (1.800 parte-hartzailearen 13.000 irudiren artean hautatu dabe). Egin gura dozun argazki motaren arabera hautatzen dozu bidaiaren helmuga.

Argazki asko egiten dozu bidaietan?

Bai, eta garbiketa itzela egin behar izaten da gero. Kenyan, esaterako, han 7.000 bat argazki inguru egin nituen; garbiketa egin ondoren, onargarriak izan zeitekeen 50en bategaz geratu nintzen, eta horreetariko 5 inguru dira benetan onak.

Gatxa da Kenya lako lekuetan aritzea?

Argiaren oso menpe egiten dozu lan Kenya lako lekuetan: argi ona ordubetea daukazu goizalban eta beste bat ilunabarrean. Ordu horretan, gainera, bilatzen zabilzen animalia topatu behar dozu, ahal bada egoera berezi batean. Lehoi bat etzanda atera zeinke, baina argazki hori ez da ikusgarria izango. Kenya moduko lekuetako animalien irudi oso onak ikusten ohi-ta gagoz, gainera, bertan bizi diren argazkilari asko dagozelako.

Digitalagaz hastea kosta jatzun?

Argazkiak egitea beti izan dot gogoko, baina analogikoaren eta digitalaren arteko garai batean, urte batzuk argazkirik egin barik egon nintzen, ez ninduelako betetzen. Kalitateko reflex digitala deskubritzen.

“Kalitateko reflex digitala deskubritu nebanean hasi nintzen digitalagaz”

tu nebanean, eta, batez be, Jose B. Ruiz argazkilari ezagutu nebanean hasi nintzen digitalaren aukerez oharitzen.

Nola ezagutu zenuen Jose B. Ruiz?

Lehenengo, www.josebruiz.com webgurearen bitartez ezagutu neban bere argazkigintza, eta berak gidatzen dituen ikastaroetan parte hartu izan dot gero.

Zer ikastaro egin izan dozu beragaz?

Las Hurdes-en izan zen ikastaro batean izan neban irakasle lehenengoz, baina beste askotan be hartu izan dot parte. Azken aldian, hemengo ikastaroak antolatzen laguntzen deustat; asteburu honetan, esaterako, Urkiolan izan dogu *Udazkeneko pagadien argazkigintza*.

Zelan joan da asteburuko hitzordua?

Urkiolan egin den lehenengo aldia izan da; aurretik, Bizkaiko kostaldean emonak zituen ikastaroak, eta European sari-tua izan zen *Puesta de luna en el Cantábrico* argazkia orduantxe egin eban. Euskal Herrira etortzeko, eguraldiak ez laguntzeak emoten eutsan beldurra, baina hemengo pagadietan argazkiak egiteko gogoia zeukalako etorri da.

“Argiaren oso menpe egiten da lan Kenya lako lekuetan”

Jente gehienarentzat ezezagunak dira natura argazkigintzaren metodoak.

Oso gitxi baloratzen da natura argazkigintza. Zuk tximeleta baten argazkia ikusi eta “Zer polita!” esan zeinke, baina kontuan izan behar dozu espezie hori non dagoen, noraino joan behar den bere bila, eta argi eskemak estudiokoaren antzekoak izan leitekezen arren, kontuan izan behar dozu naturako elementuak zure kontrolatik kanpora dagozela.

Geologiatik argazkigintzara?

Geologia ikasten nebanean naturara egiten genduzen irteera asko argazkien bitartez dokumentatzen genduen. Gero, argazkigintza digitalak ikasteko aukera asko emon deust: entseatzeko eta hanka sartuz ikasteko aukera aipatzen da.

Noiz da natura argazki bat berezia?

Edozein argazkiren oinarria konposizioa da: elementuak zelan dagozen argazkian ordenatuta. Pagoak zer leku betetzen dauen argazkian. Argazki horrek, gainera, momentu berezi bat harrapatu behar dau: argi berezia; egunsentiko edo ilunabarreko une berezi bat. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 27 22:00etan
ETXE + THE USKIZ
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

AZAROAK 28 22:00etan
ANNI B SWEET + THEE BRANDY HIPS
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

ABENDUAK 3 21:00etan
III. DURANG[H]OTS
KONTZERTUA-JAM SESSION. Sarrera doan.

ABENDUAK 4 22:00etan
BETAGARRI
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MIRANT AL CEL
Jesus Garay

Abenduak 4 • 21:30ean

GERARD QUINTANA ETA JABIER MUGURUZA

Abenduak 7 • 21:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tel.: 946 601 07 76 Artekale, 14 Durango

LITERATURA > LEHIAKETA

Iurretako Biblioteka saritu du Maria Moliner lehiaketak

Bibliotekan, haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko aurrera eramaten dituzten askotariko ekimenen arrakastaren isla da saria

Bosgarren aldia da aurten-goia, haur eta gazteentzako 200 liburuko sorta batekin saritu dutena Iurretako Herri Biblioteka. Arrazoia, aurreko lau aldietan bezala, haur eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko helburuz Iurretako Bibliotekan aurrera eramaten dituzten ekimenen zerrenda luzea da. Urte honetan zehar, esan bezala, etxeko txikiak liburutegira eta ondorioz literaturara gerturatzeko mar txan ipinitako jardueren bilduma da saritu dutena.

Liburutegi publikoetan irakurzaletasuna sustatzeko helburua duen Maria Moliner lehiaketaren saria bosgarrenez Iurretako Bibliotekak jasotzea, honako ekimenen arrakastatsuei zor zaie: herriko ikastetxeetako adin guztietako ikasleei zuzenduta, Bibliotekaren funtzionamendua, erabilerak eta zabalkundea ezagutzera



emateko antolatutako bisita gidatuak, hilabeteroko haur zein helduei zuzenduriko ipuin-kontalari saioak, liburutegitik antolatzen duten ipuin eta bertso lehiaketa, eta *Bularretik Mintzora* haur txikiak literaturara gerturatzeko sortutako ekimena.

Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak, 50.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako liburutegiek abiatzen dituzten proiektuei pizgarriak emateko sortutakoa da sariketa, eta liburutegietako bildumak osatzeko liburuak dira sari. ■ I.E.

DANTZA > DEIALDIA

Dantzazaleen abenduko hitzordua: 'Fasio oroitzuz'

Abenduaren 19an, martitzenetako dantzaleku izan duten Plateruenean batuko dira dantzariak

Durango Plateruenean, AIKO dantza ikastaroak martxan ipini zituztenetik martitzenetako hitzorduen lekua izan dutenean bertan, antolatu dute, urtea agurtu aurretik, dantzazaleentzako elkargune izango den dantza bazkaria. Abenduaren 19an, 14:30ean, Plateruenean egin dute gabonetako bazkarirako hitzordua.

Orain mende bat Igorren jaiotako Bonifazio Arandia "Fasio" trikitilariaren omenaldi legez ere prestatu dute abenduaren 19koa. Joan zen ikasturtean eta urritik hona ikasitako agaz girotuko dute, seguru, bazkaria. ■ I.E.



Abenduaren 19an Plateruenean da dantzarien hitzordua

Urrian martxan ipini zuten AIKO dantza ikastaroan lortutako trebeziak erakusteko, baina, batez ere, lehenengo herrietako jaietako moduko plaza batean dantzatzuz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Fasioren omenaldi moduan ere pentsatu dute abenduaren 19koa

MUSIKA > ZIKLOA

Kantuaren Kantoiko usteen, akordeen eta akorduen uzta

Lau musikari eta beste hainbeste gitarraren kontuak entzun dira Platerueneko oholtzan

Joan zen eguen gaueko Pettiren bisitarekin eman ditu bereak, oraingo, Durango Plateruenean ez kontzertu, ez hitzaldi izan ez den Kantuaren Kantoia "esperimentuak". Lau eguenetan, bakoitzean abeslari bat, giro intimoa eta Jonan Fernandez kazetariaren gidaritzapean, sorkuntzaz, letrez, kantez, zinemas, maitasunaz... jardun dira: Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren eta Petti kantariak izan dira.

Saio zinematografikoa osatu zuen Kantuaren Kantoian Pettik

Entzuleen eta musikarien gozamenerako pentsatutako formatuan, musikaren munduan barnatzen hasi zirenekoak kontatu dituzte: *Irla izan* diskoa kale-ratu berri duen Anarik, umetan solfoa eta pianoa jotzen hasi zela; bateriarekin euskal rock radikalarren hastapenetan heavy bati 25.000 pezetatan bateria erositako hasi zela; eta gitarra Gasteizen hartu zuela lehenengoz gogoratu zuen. Pianoa, flauta eta gitarra izan zirela

bere lehenengo bidea kontatu zuen Txuma Murugarrenek. Punkyren "Egizu zeuk" lemagaz, gitarra hartu eta etxean anaiarekin lehenengo grabazioak zelan egin zituen kontatu zuen Murugarrenek. Eta urtez urte bere sorkuntzak zelan eboluzionatu duen erakutsi du Kantuaren Kantoian.

Anariarekin—hala aitortu zuen azkoitiarrak Kantuaren Kantoian—estrenaldia izan zenean—konpartitzen duen zaletasunaren, zinemaren inguruko saioa izan zen kantaldi zikloaren azken saioa: zinematografikoa izan zen Petti beratarrena. *Dead Man*, *El septimo sello*, *El Padrino* eta *Pulp Fiction* filmen soinu bandak jo zituen, besteak beste, laster disko berria aurkeztuko duen Pettik.

Akordeak eta akorduak entzuleekin konpartitu zituen Mikel Urdangarinek ere: bere kantetako paisaiak: "Barrura sartzen jatzuzen eta kanta baten ateratzen diren" horiek eskaini zituen. ■ I.E.

Bere kantetako paisaiak erakutsi zituen, gitarrak lagunduta, Urdangarinek



Kepa Aginako

Kantak, berbaz esatea ezinezko den kontu horiek adierazteko

"Aurrejuskua aparte uzteko" gonbita egin zien kantazaleei Txuma Murugarrenek: "Uzten baldin badiozu, belarririk sartzen den musika bihotzera doa zuzenean". Hori bai, kantez ere euren denbora behar dutela aldarrikatu zuen: euren bidea egiten utzi behar zaiela. Bihotzean sentitu baina "hitz eginez azalazten ez direnak, kanten bitar-

tez ateratzen" dituela aitortu zuen, bestalde, Pettik: "Nire lehenengo bikotekide izan zenari, kantatuz erran behar izan nion erran behar niona, terapeutikoa da musika alde horretatik".

Mugarra aldeko mendialdien gaztetako paisaietatik, tabernako lagunartetik, Gasteiztik edo hasiera batean gutuna zen idatzitik sortutako kantak jo zituen Mikel Urdangarin zornotzarrak. Kantetan agertzen dena baino gehiago idazten duela kontatu zuen aldiz Anarik, eta "kentzen, kentzen" joaten dela kanta osatzen. Hori omen du kantagile azkoitiarrak Platerueneko Kantoian eskaini zituenak lako kantak egiteko metodoa.

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



“Euskaldun gisa sufritu egiten dugu eta horrek sortzera garamatza, ezinbestean”

Gotzon Barandiaran Larrabetzun jaio zen 1974an. Euskarak nabarmen astindu du bere bizi-ibilbidea. Irakasle gisa eta kultur sorkuntzaz nahiz hitzen jolasez bete ditu azken lanak. Iaz abiaturiko ‘Ahotsenea’ proiektua gorpuzturik datorkigu Azokara.

Durangoko Azokan presente izango zara, oraingoan ‘Ahotsenea’ proiektuarekin...

Bai, euskarazko sortzaileen gunea izango da Durangoko Azokan, eta horretan gabilta buru-belarri. *Ahotsenean* euskarazko idazle eta musikariek euren lanak aurkeztuko dizkiete entzule eta irakurleei, bertatik bertara. Urteen joan-etorrian, euskarazko literatura eta musikaren garrantzia asko gutxitu den ondorioak eraginda sortu dugu *Ahotsenea*. Batetik, euskarazkoa ez den musikak eta literaturak eta, bestetik, literaturarekin eta musikarekin zerikusia ez duten proposamenek euskarazkoekin baino arreta gehiago erakarri dutela ondorioztatu dugulako sortu dugu *Ahotsenea*. Guk dakigula, Durangoko Azoka euskal liburu eta diskoen azoka izateko jaio zen.

Oihartzun handiko eta oihartzun gutxiagoko izenak bilduko dira bertan.

Guretzat ospeak ez du ezelako pribilegiarik eman behar, ezin ditugu lehen mailako eta bigarren mailako sortzaileak bereizi. Guretzat denak dira euskarazko sortzaile, eta denek merezi dute lekua *Ahotsenean*.

Poesia, musika eta letrak uztarturik, zure bizitzako mapa osatu duzu orain arte...

Baina nire bizitzako mapa hori baino askoz zabalagoa

eta beteagoa dela esango nuke. Poesia eta musika uztarturik, nire bizitzako une jakin batzuetan, beste batzuekin konpartitu gura ditudan sentimendu eta gogoeta zenbait proposatzen ditut.

Nolakoa da euskal kultura Gotzon Barandiaranen begietara? Eta zerronka ditu orain euskal kulturak?

Euskarazko kultura eten barik zapaltzen duten kultura espainol, frantses eta anglosaxoiari zelan aurre egin asmatu ezinik dabil. Erresistentzia etenbakoan. Nire aburuz, euskarazko kultura osotzen dugunok irakurketa komunak egin eta irtenbide bateratuak ematen hasi behar dugu.

Sortzaileen munduan gazte belaunaldirik badago Euskal Herrian...

Euskal Herrian beti egongo dira sortzaile gazteak. Gure herria erasotua da, kulturalki zein politikoki. Euskaldun moduan sufritu egiten dugu eta horrek sortzera garamatza, ezinbestean.

Zer behar da sortzaile izateko?

Adierazten duzun hori zure komunitatearekin partekatze beharrezana.

Euskal sorkuntzaren erakuslelhoa al da Azoka?

Bai horixe, eta garrantzitsuenetakoa, gainera.



Zer ekarpen egiten dio Azokak Euskal Kulturari eta zein ekarpen du egiteke?

Gurea lako kultura gutxiagotuek beroa behar dute, maitatuak sentitu behar dira, baliagarriak direla sinetsi. Euskarazko kulturaren adierazpide batzuen inguruan milaka lagun biltzeko eginkizuna du Azokak, eta aurrerantzean horrela izaten segi beharko luke, batez ere, euskarazkoa denari garrantzia emanda. Gainera, egiten dugunari buruz berba egiteko, galderak egiteko, eztabaidatzeko gune izan liteke, kanpoeder baino, etxean konpondu beharrekoak konpontzeko.

44 segundutan

BBK

Bihotz bakartien kluba. Astelehen gauetan euskarazko poesia kantatzeko kluba.

Larrabetzu

Ia 1.800 biztanleko herria. Kukubiltxo, Hori Bai gaztetxea eta inoren zain egon barik auzolanean makina bat egitasmo burutu gura litzuzkeen lagun koadrila

Txillardegi

Euskarazko nobelagintza modemoaren aitapontekoa, herritarrengandik oso hurbil dagoen intelektuala, independentista izateagatik baztertu duten euskaltzalea, semea kartzelan duen senideetako bat.

Poesia

Berba bakoitzaren egia aurkitzen laguntzen didan makulua, askorekin konpartitu gura duen gure ingurua azaltzeko hizkera.

Musika

Berba barik ere asko esaten didan eguneroko laguna.

Etorkizuna

Geurea da.

44

DURANGOKO AZOKA = ZURE ESKURA DAGO =

CATALÀ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO
+ 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA)
X 44 URTE



Durangaldeko Adiskideen



Bilakako Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia



DURANGO



bbk



eitb



III Institut ramon llull
Hitzikuntza eta kultura hiztegiak




EROSKI



ISA

Bertsolari Txapelketa Nagusia, azken txanpako galbahean



Argazkiak: Bertsozale Elkarte

Aste bi baino ez dira falta Txapelketa Nagusia amaitzeko. Lau urterik behin ospatzen den bertsoaren zita garrantzitsuaren finala abenduaren 13an izango da, Barakaldon. Domeka honetan erabakiko da zer zortzi bertsolarik kantatuko daben BECen; Iturriagak eta Amurizak aukerak ditue, Elortzak ez.

Amurizak Laudioko kanporaketa eta Gasteizko finalurrekoa irabazi zituen

Bertsolaritzak asko dau sentimendu eta dibertimendutik, eta txapelketetan, faktore horreek pisu handiagoa hartu ohi dabe. Horregaitik, aurtengo Txapelketa Nagusia aurkezterakoan, errusiar mendiagaz konparazioa egin eta zaletuak erakartzeko apustua egin eben antolatzaileek. Finala geroago eta hurrago dagoen honetan, Bertsozale Elkartearen helburua bete dela esan leiteke: saio guztietan makina bat jente izan da, eta finalerako ez da ia sarrerarik geratzen.

Errusiar mendi horretako bidaian, azken metroetan sartuta dago txapelketa. Orain arte, hor ibili da gora eta behera, puntu altuetara helduz, eta, jaitsiera batzuekin behera. Belaunaldi barri

batek muturra sartu eban kanporaketetan: Miren Amuriza, Beñat Gaztelumendi, Jone Uria, Maialen Arzallus... Finalerdietan, baina, loraldi hau oraindino berdesamar dagoela be ikusi da. Horreen artean, halan be, berriztarra izan da oreka mantentzen trebeena.

Gozoak eta gaziak

Amurizak Laudioko kanporaketa eta Gasteizko finalurrekoa irabazi zituen, galtzeko gitxi eta irabazteko asko zeukalarik. Batzuek sorpresa izan da, beste batzuek ez hainbeste. Egia dena da jentearengana ailegatzea lortu dauela.

Nobedadeekin batera, aurreko edizinoen finalistek goia jotzea itxaroten zen, eta batzuek lortu

dabela esan leiteke. Dena dela, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak ez dabe euren mailarik onena erakutsi, eta txapelketak hutsune hori igarri dau, segurutik. Iturriagak kale egin eban Gasteizen, baina joan zen domekan Iruñean egindako saio onari esker, ia hanka biak ditu finalean; matematikari itxaron behar. Elortza ez da BECeko oholtzan egongo, parte hartutako bi finalurrekoetan puntuazio baxua jaso ondoren. Potoak lagun izan ditu aurten durangarrak.

Abenduaren 13an izango da azken saioa Barakaldon. Andoni Egañagaz batera, Amets Arzallus eta Aitor Mendiluzek badaukie dagoeneko bertan kantatzeko pasea; gainerakoak nortzukizango diren domeka honetan erabakiko da Donostian. Maialen Lujanbio, Jon Maia, Uxue Alberdi, Aitor Sarriegi, Arkaitz Estiballes eta Iñaki Gurrutxaga izango dira Belodromoan.

Iturriaga finaleko zortzikotearen barruan dago kasik, Amuriza aukerekin, eta Elortza aukerak galduta. Euren balantze eta bizipenak batu doguz ondoko orrialdean. ■ M. Onaindia

Matematikaren zain, Iturriagak ia hanka biak daukaz finalean

Elortza ez da BECeko oholtzan egongo, bi finalurrekoetan puntuazio baxua jaso ondoren



“Gernikan ez neban gozatu”

Finaletik kanpora geratu da Igor Elortza. Lehenengo finalerdian potoak ihes egin eutsan, eta bigarrenen ezin gozatu ibili zen. Gauza asko egiteko gogoz dago, baina hausnartzeko sasoia be badela dino durangarrak.

Egiguzu zure lanaren balantzea.
Bi saioetan hankasartze galanta egin neban: potoa. Tolosan gustura ibili nintzen, eta potoak egin eustan kalte. Hurrengo egunean puntuazino altua egon zen Hendaian, eta, gainera, hurrengo saiorako bost egun baino ez neukazela jakin neban. Moralki kolpea izan zen ha guztia. Asteazkenean buelta emon, eta Gernikara gogotsu joan nintzen, baina ez neban gozatu.

Txapelketak emon egiten dau, baina eskatu be bai...
Lan asko eskatzen dau, eta zure bizimoduari zein ingurukoari ordu ugari kendu. Ez dauenean

ondo irtetzen, sentsazio eskasa da. Bestalde, txapelketara egin gura dozuna argi izanda joatea komeni da. Ni, bertsoetan erraz nenbilen arren, buruan beste kontu batzuk darabildazela harrapatu nau txapelketak.

“Txapelketa honek ez nau harrapatu garairik grinatsuenean”

Zelan ikusi dozu Txapelketa?
Belaunaldi barri bat agertu da, nahiz eta finalurrekoen bigarren bueltan apur bat ahuldu. Andrazkoen presentzia be handitu da. Bestalde, Lujanbioren lana izan da aipagarriena; finalean maila ona ikustea itxaroten dot.

Abenduaren 13an, baina, ez da bertsoalaritza amaitzen...
Finalean sartu banintz be, edizino hau inflexino puntu bat litzatzeke; hasunartzeko sasoia da niretzako. Dena dela, bertsoarako gogoz nago, eta egiteko gauza asko dagoela uste dot, txapelketetan zein txapelketetatik aparte.

“Hasieratik laino batean ibili naz”

Txapelketa honetako sorpresa edo errebelazioa izan da askorentzat Miren Amuriza. Finalean sartzeko aukerak daukaz; mugaren ertzean dago. Lasai eta gustura ibili da kantuan, eta entzuleengana heltzea lortu dau.

Zelan baloratzen dozu orain arte egindako lana?
Hasieran ezelako esperantza barik joan nintzen, trankil. Saioetan lasai eta konfiantzagaz ibili naz; aurrera joan ahala, presinoa handiagotzeko arriskua zegoen, baina azkenean lasai egon naz.

Erraz ikusi zaitugu bertsoetan.
Udatik hona lanean ibili gara, erri-mak-eta lantzen. Bertsoa hastera koan banekien zeozer etorriko jatala, eta segurtasun horrek asko lagundu deust.

Batzuentzat sorpresa izan da zuk egindakoa.

Batzuentzat sorpresa izango zen, eta beste batzuentzat sustoa be bai (barrez). Nik, egia esan, ez neban itxaroten honaino ailegatzea.

Non ibili zara gusturen? Zer saioetan?
Osotara, Laudioko kanporaketan. Gasteizen, bertan momentuan ez zen nire buruan sartzen Unai batek beste egitea, baina ondo ibili nintzen, antza denez. Azkeneko saioa, Gernikakoa, gorabeheratsuena izan zen: potoagaz bordatu neban kartzelan.

Zer ekarpen egin deustu Txapelketak? Zerekin geratzen zara?

Hasieratik laino batean ibili naz, eta bajatu beharrean geroago eta galduago ibili naz, ez nebalako itxaroten hau egitea, ezta halako erantzuna edukitzea be. Adibidez, jente asko etorri jata finalera pasatuko nazela esanez; jentea alboan egoteagaz geratzen naz.

“Egia esan, ez neban itxaroten honaino ailegatzea”



“Finaleko eguna heltzeko gogoz nago”

Domeka honetan jakingo da seguru, baina Unai Iturriagak BECeko oholtzako aulki bat erreserbatuta daukala emoten dau. Iruñeko finalerdian, Gasteizen egindakoa hobetu eban. Abenduaren 13rako gogotsu dago.

Esan leiteke, Txapelketan behetik gorantz etorri zarela.
Ez neukan gatx gora egitea, egia esan. Gasteizen nahiko eskas ibili nintzen, kostata. Jenteak be igarri eban hori kanpotik. Iruñean beste jarrera bat izan neban, eta batzuentan gustura be ibili nintzen.

“Pena eta amorrua emoten deust Igor finalean ez egoteak”

Jarrerak garrantzia daukala esan izan dozu egunotan...
Beti da horrela, baina txapelketa batean oraindino eta gehiago. Ezin da irten erlaxatuta, jarrera gogorra izan behar da eskenatokian. Iruñean jarrera hori edukitzen saiatu nintzen.

Gainera, aurretik saio txarra egin da etorri zinen.
Horrek lana zaildu leike, finalean egon behar horren presinoagaitik, baina agian erraztu be bai. Izan be, Gasteizen baino itxura hobea emoteko, ez neukan gatx. Aurrekoa ahaztu eta ahalik eta ondoen egitera joan nintzen.

Azken agurrean ingurukoaketa Igor aipatu zenuen.
Datorren urtean beteko dira 20 urte Bizkaia eta Arabako Txapelketan parte hartu genduenetik; bizitza osoa daroagu elkarregaz. Pena handia da pertsonalki, eta, gainera, beragaz entrenatzen ibili garenok badakigu zelan ibili den. Horregaitik, amorrua be sentitzen dot.

Oker handirik ez badago, finalean egongo zara. Zelan zagoz?
Gogoz; bai eguna bera heltzeko, bai jarrera aldetik tentsino bat lortzeko. Ez da erraza izango. Disfrutatzeke gogoz be bai, egun hori ederra izaten da-eta.

Utzi Durango bakean!

Durango Amnistiaren Aldeko Mugimenduak urria eta azaroa bitartean jazo diren gertaeren harira honako irakurketa egiten du:

Espainiar zein frantziar estatuaren jazarpenak ez du etenik, eta azken hilabeteotan ugaritu baino ez dira egin Euskal Herriaren eta euskal herritarren aurkako erasoak. Azken oldarraldi horren baitan kokatzen ditugu durangarren aurka berriki eman diren eraso horiek. Lehenik eta behin, gogora ekarri nahi ditugu herriko jaietan preso politikoaren argazkien kontura gertaturikoak; Aresen txakurrek presoekin Euskal Herritarren aldeko pankartak kendu zituzten alde zahar eta txosnagunetik, eta gazte bat identifikatu zuten urriaren 10ean presoekin alde eginiko kalejiran. Hala ere, ez zuten lortu presoekin argazkiak herri osoan zehar agertzea besterik. Bestalde, datozen asteetan Intxaurre Kultur Elkarteko zazpi kidek Espainiako Audentzia Nazionalera joan beharra dute. 2007an Guardia Zibilak buruturiko miaketa baten ondorioz, zazpi durangar hauei talde terroristako kide izatea leporatzen diete, horrek ekar diezazkiekeen ondorioekin.

Madrilgo gerra tribunalak elkartasuna ezabatzea eta euskal disidentziarekin bukatzea baino ez du bilatzen neurri horiekin.

Bestalde, agintari frantziarrek hainbatetan errepikatu izan dute Euskal Herriko gatazka politikoa Espainiako "barne arazo" bat dela. Azaroan zehar durangarroi eragiten diguten eta Parisek erakutsitako balizko jarrera neutrala faltsua dela frogatzen duten bi gertaera aipa genitzake: berriki, Frantziar espetxeratik dagoen Oier Gonzalez gazteari zazpi urteko espetxe zigorra ezarri diote. Horrez gain, azaroaren 17an Gorka Palaciosen aurkako epaiketa hasi zen Parisen; ia sei urtez prebentibo gisara eduki ostean ETako kidea izateagatik epaituko dute.

Euskal preso politikoak bahitu gisara erabiltzen dituzte bi estatuek, herriari xantxia egiteko helburuarekin. Azken erasoaldi horren baitan kokatzen da, baita, presoekin senideen aurkako neurrien gogortzea. Preso asko beraien senide edo lagun bisi-tarik gabe geratu dira umiliatzeko prest egon ez direlako. Besteak beste, Asier Virumbrales eskualdeko preso politikoak azken bi asteotako aurrez aurreko galdu du.

Euskal Herriaren aldaketa politiko eta sozialaren aldeko apustua indartu ahala, Estatuaren errepresioaren aldeko jarrera bortitzagoa hartuko dutelakoan gaude, gatazkari irtenbide politikoa bilatzeko ezintasunaren erakusle. Herriar guztioi dagokigu, beraz, eskubide urraketa horien aurkako herri harresia eraikitzea.

Horregatik, gaurtik bertatik hasita, eraso hauek zein etorkizunean gerta daitezkeenak salatzea eta egingo diren mobilizazioetan parte hartzea animatzen zaituztegu guztiok.

Durango Amnistiaren Aldeko Mugimendua

Boikota Gerediaga elkarteari eta Azokari!

Lehenik eta behin aitormen bat egin beharra daukat: orain arte ia urtero hutsik egin gabe bisitatu izan dut Durango Azoka; txikitzen eskolatik eramaten gintuzten, gero-ora ohitura bihurtu zen, eta huts egiten nuen urtean arantzaxo bat gelditzen zitzaidan nire barrenean; hurrengo urtean soilik joanda atera zitezkeen arantza. Baina, egia esan, aurrerantzean gauzak aldatu ezik ez naiz berriro "Euskal" Liburu eta Disko Azokara joango.

Ez pentsa mehatxu soil bat besterik ez denik, izan ere, Azokan parte ez hartzeko arrazoi ugari baitut.

Zergati nagusia, Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen hipokresia da. Horren adierazle dira Nerea Mujikak, Gerediaga elkartearen lehendakariak, Anboto aldizkariari eskainitako elkarrizketan (ikus 2009/11/6ko Anboto) inongo lotsarik gabe eginiko adierazpenak. Elkarrizketaren hasiera-hasieratik honela dio: "A: Gerediaga ezagutzen ez duen bati, zelan azaldu labur-labur?" - "NM: Herri elkarte bat da Gerediaga, elkarte kulturala. Durangaldean bizimodu hobe baten alde lan egiten duena. Lehengoari begiratzen diogu; ondarea eta izaerari. Baina, funtsean, Durangaldea maite dugulako egiten dugu lan (...) kulturaren, historian, etnografian, ikerketa munduan... Gerediaga elkartearen erreferentzia nagusia da. Bertan aurkituko du edonork laguntza osoa edonoren eskura."

Hau irakurri ondoren, esan liteke Gerediaga argi utzi diola Durangaldeari bere kulturaren defentsa duela elkartearen lanaren ardatz nagusia. Haatik, hori irakurririkoan galdera xume bat egin nioke nire buruari: Zein da Durangaldea bereizten duen kultura? Ezpata dantzari elegantean *Dantzari dantza*, Anboto mendilerroa, Urkiolako pagadiak, Ibaizabal erreka, gure baserri ederrak... Zenbat gauza, zein baino zein osasuntsuagoak!

Baina, bada munstro bat hori guztia aurretik eramateko prest datorrena: AHTa. Gure baserri, erreka eta auzoak txikitzeko prest dagoena. Honen aurrean, nola azaldu dezake Gerediaga Elkarte ohoretsuak gaurdaino AHTa Durangaldean jada eragiten ari den eta gelditzen ez badugu eragingo lituzkeen kalte kulturalen inguruan ezer egin ez izana? Izan ere, gure baserri, erreka eta auzoak Durangaldeko euskal kulturaren parte baitira. Azpiegituren gehiegizko eraikuntzek gure kultur ondarea desager-taraziko dute, eta, orduan, zer egingo dugu: argazki zaharrek kontsolatu? Beno, argazki horiek Azokan salgai dauden liburuetan jasotzen badira, gaitzerdi, ala?

Elkarrizketa aurrera doan heinean beste perlatxo bat aurkitzen dut, Nerea Mujikaren umorearen inguruan, umore, beltza benetan, esango nuke, izan ere, mendiak, baserriak, zuhaitzak, landaredia... galdu daitezke, baina umorea ez, ezta, Nerea? Honela dio: "A: Durangaldea zer ematen dio Azokari, eta zer jaso du?" - "NM: (...) Nire geografo senakesaten dit, baina, frogatuta dago, Durangaldea kokapen itzela duela Euskal Herriaren. Paisaiak, inguruak, herri izaerak, distantziak... izugarri laguntzen diote Azokari."

Zergatik ez duzu geografo sen hori berori erabiltzen AHTak itzulezinezko kalteak eragingo dituela esateko? Kalte ekologiko, kultural eta sozialak, zehazki. Edo zer uste duzu, AHTak onuraren bat ekar lekiokela Azokari? Agian Euskaltzaleak Durangora abia-

da bizian ekarri ditzake, goizean Azokara bueltatxo bat eta arratsaldean goizean Durango erosi duten liburua Parisko Eiffel dorrearen azpian lasai asko irakurtzeko aukera izango dute. Gose galanta pasatuko zenuke umoreta dedikatuz gero!

Are gehiago, aurrez aipatu dudana bezala, Durangaldean bizimodu hobe baten alde egiten duzue lan. Dena "Durangaldea maite duzuelako". Ezker abertzaleak ere Durangaldea maite duelako egiten du lan, eta horixe da bere azken kanpainako slogana (copyright gabe, noski). Desberdintasun handi bat dago bien artean, baina, ezker abertzalea, AHTaren proiektua kaleratu zenetik, munstro honen aurkako mugimenduan buru-belarri aritu da lanean Euskal Herri osoan. Baina zuok gaurdaino ez duzue ahorrak zabaldu ere egin. Zeri diozue beldur? Durangaldea AHTa eraikiz txikitu nahi duten Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia zein Gipuzkoako Aldundien diru-laguntzak galtzeko arriskua izango ote?

Lotsa gutxi eta azkeneko larrosa bat eskaintzen digu elkarrizketak: "A: Ordenagailuko pantailan duzun irudia?" - "NM: Orozketatik ataratako neguko argazki bat". Nik uste, orain dela urtebeteko argazkia izango dela, izan ere, ziur nago gaurko Orozketaren argazkia pantailan jartzeko gai lehen aipatu ditudan erakundeetako agintari politikoak eta horien atzean ezkututzen diren interes ekonomikoen jabeak besterik ez direla.

Adeitasun guztiz, gomendio bat egingo nizuke, Nerea, egizu osteratxo bat Orozketatik, ea gaur nola aurkitzen duzun hain preziatu duzun Durangalde maite hori.

Bitartean, gainontzekook jarrai dezagun geurea dena defenditzen: gure baserri, erreka, iturburu, mendi, zuhaitz, hizkuntza eta abarrak geureak direla ozen oihukatuko dugu, Abenduaren 7an, Azokaren aurrean hasi eta Durango kaleetan zehar!

Gorka Erdoiza - Durango

120 aurrez aurreko galdu dira azken hiru asteotan

Etixerat elkarteak gogor salatu nahi du azken asteetan Espainiar Estatuaren hainbat espetxetan gertatzen ari dena. Euskal preso politikoak bizi baldintza gogorrenetara bizitzera behartzen dituzte. Estrategia horren baitako azken katebegia, senide eta lagunaren kontrako eraso bat da. Aurrez aurrekoetan sartu baino lehen, katxeatu, ukitu eta umiliatu nahi dituzte.

Euskal jendarteak jakin behar du, funtzionarioek eta espetxeek bitartekoak dituztela hori egiteko, eskuekin guk ukitu gabe eta gure buruak umiliatzen saiatu gabe. Horren eredu dira segurtasun arkuak edo raketa. Baina, euskal preso politikoaren egoera are gehiago zaildu asmoz eta euren inguru sozial eta afektibotik aldentzeko asmoz, Espainiar Estatuak beste urrats bat eman du. Euren helburua argia da: euskal preso politikoak pertsona eta subjektu politiko gisara suntsitzea. Horretarako, komunikazio forma oro eten nahi du.

Etixeratentzat, eraso berri hau dinamika errepresibo oso baten baitan kokatzen da. Urtea, ustezko "damutze" politikaren indartzea eta propaganda mediatikoarekin hasi zuen Rubalcabak gidatzen duen aparato errepresiboak, ondoren Aresen argazkien aurka abiatu zuen gurutzada tamalgarri eta bortitza etorri zen, bitartean gure elkarte lege kano uztearekin mehatxatu dute eta, azkenik, aurrez aurrekoetan sartzeko senide eta lagunak umiliatu nahi izatea heldu da.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboa suntsitzeko mekanismoak dira, senide eta lagunaren artean batasuna hausteko mekanismoak. Baina, argi eta garbi esan nahi diegu berriz ere kale egingo dutela. Borroka hau argitasunez, pazientziaz eta duintasunez aurrera eramango dugula. Badira urteak non bidean hamaika traba jartzen dizkiguten, baina behin eta berriz gainditzen ditugu. Elkartasunak mugarik eta etenik ez duelako. Gure senide eta lagunak maite ditugulako eta maitasunak errepresioak berak baino indar gehiago duelako. Elkartasun uholdea antolatu behar da euskal jendartearen, indarrean dagoen espetxe politika kriminalari amaiera emateko. Guztion arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Interpelazioa Euskal Herriaren eta nazioartean. Ukitu beharreko ate guztiak ukitutako ditugu gure senide eta lagun presoekin eskubideak errespetatuak izan daitezkeen. Kaleak eta bulegoak astinduko ditugu konpromiso bila.

Azken berriak espetxeetatik:

-Aranjuezen leihatilan senideek honakoa irakurri dute: "Debido a que se introducen objetos que no pueden ser detectados por el arco, todos los familiares podrán ser sometidos a cacheos palpables y desnudos integrales".

-Larunbatean, Valencia In aurkitzen den Josu Beaumont preso politikoaren emaztea, arreba eta bi seme-alabak aurrez aurrekorik gabe geratu ziren. Espetxean salaketa jarri eta aste honetan zaintza epaitegian salaketa sartzeko asmoa dute.

-Puerto Ien bi presoekin senideek aurrez aurrekorik gabe geratu ziren larunbatean.

-Puerto IIIn bi presoekin senideak aurrez aurrekorik gabe geratu ziren larunbatean.

-Puerto IIIIn espetxean Xabier Alegria presoaren ama, bikotea, alaba eta anaiak ezin izan zuten aurrez aurrekorik egin. Xabier Rey presoaren senideak ere ezin izan zuten burutu.

-Azken hiru espetxe hauetara joandako senideek salaketak jarri zituzten.

-Teruelen ere aurrez aurrekorik gabe geratu ziren.

-Ocaña Ien aurkitzen diren Iñaki Pujana Alberdi, Koldo Hermosa Urrea eta Josce Ignacio Gaztañaga Bidaurreta presoekin senideek ezin izan dituzte aurrez aurrekoak burutu pasa den larunbatean. Senideek salaketak jarri dituzte zaintza epaitegietan.

-Villanen aurkitzen den Nuria Alzugarai presoaren ama eta bi nebek ezin izan dute aurrez aurrekorik egin pasa den igandean. Espetxean salaketa jarri zuten eta baita Eldako epaitegian ere.

-Igandean, Cordoban, Igor Portu aurrez aurrekorik gabe geratu zen.

-Villabonan, astelehenean, Raúl Alonso presoaren aurrez aurrekorik gabe geratu da.

-Astelehenean, Mikel Etxaburren senideak bisera sartu baino lehen katxeatuak

izan behar zirela eta, ezetz esan, eta bisik gabe bueltan datoz Alcala-Mekotik.

-Igandean, Cordoban, Igor Portu aurrez aurrekorik gabe geratu zen.
-Villabonan, astelehen honetan, Raúl Alonso preso aurrez aurrekorik gabe geratu da.
Euskal presoak etxera!

Durangoko errepresaliatuen senideak

Ezabaketa Astea

30 urte daramatza EHEk Euskal Herria berreuskalduntzeko bidean urratsak ematen; 30 urte luze, euskaldunon hizkuntza eskubideen aurkako erasoak salatzen, euskararen normalizazio prozesuan akuilu lana egiten, euskaraz bizitzeko hautua hedatzen eta herritarrei ibilbide horretara atxikitzeo dinamikak eta espazioak eskaintzen. Halarik ere, duela 30 urte EHE sortzera eraman zuten funtsezko arrazoiak, tamalez, arnas betean direla egun esan behar dugu.

Euskaldunok bigarren mailako herritar izaten jarraitzen dugu; agerikoa da euskarak eta euskaldunok etengabe jasaten ditugun erasoak, eta egun, gure sorreran gertatzen zen bezala, gure hizkuntza eskubideak ez bermatzeaz gain, ez dira errespetatu ere egiten.

Euskal Herriko paisaia linguistikoa erabat erdalduna dela aitortu behar dugu, kaleen izenak, herri-lanetak iragarpenak, oinarriko kontsumo produktuen etiketak, errezetak, epaitegiak ebazpenak, erakundeetako formularioak eta abar luzeegi bat, erdara hutsez agertzen zaizkigu edonon, eta batzuetan, euskararentzat irain diren itzulpen kaskarren ondoan besterik ez dira agertzen, kasurik onenetan. Areago, Euskal Herria zatikatzen duten hiru administrazioen artean diluitzen zaigu euskararen herria, eta horien artean mugitzean, jazarpen horren adierazle diren "Francia", "Pais Vasco", "Navarra" jartzen duten afixekin egin dugu topo han eta hemen.

Euskal Herriko administrazio eta hedabide nagusiak indar erdaltzaleen esku daude. Beren ekimenaren ondorio zuzen gisa, herri euskaldunaren aurkako mezuak ere indartzen doaz eta horren ikurrak dira euskaraz ez jakiteko eskubide ezkutua aitzakiatzat jarriz, ustezko elebitasun eta hirueletasunen alde zabaltzen ari diren mezuak. Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak irakaskuntzaren alorrean abian jarri dituen neurriak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lan eskaintza publikoetarako hizkuntza eskakizunen ia desagertzearen inguruko adierazpenak; Max Brisson, Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) buruak euskara frantsesaren pareko ez izatearen alde egindako adierazpenak; Nafarroa Garaiko administrazioek euskararen kontrako erasoaldi etengabea eta abar dira zapalkuntza administratiboaren eta hortik eratorritako menpeko politika suntziztaileen froga garbiena.

Gainera, euskararen estatusak, edo estatus ofizial ezak, beren horretan dirau eta hizkuntza politiken oinarrian erdaren nagusitasuna mantentzea beste helbururik ez dago, inposatutako mugen alde guztietan. Hala ere, euskara da lurralde honi izaera ematen diona, eta oso ondo dakite hori Euskal Herriaren asimilazio prozesuan indar egin eta euskararen lurraldea menperatzeko lanean ari direnek. Hizkuntza ordezkapenaren bidea aukeratu dute etnozidua gauzatzeko, eta egun, prozesu horrek aurrera dirau.

Arestian aipatu guztia kontuan izanik, EHEk abian du jada urtero egiten den Ezabaketa Astearen aurtengo edizioa, herri, auzo eta zenbait eskualdeburuetan ere, paisaia erdaldunaren ezabaketa protagonistan izango duten hainbat ekimen izango dira, batez ere, datorren asteburuari begira eta EHEtik dei egiten diegu herritarrei, beraiek ere hizkuntza zapalkuntza agerian uzteko ekimena bultzatu eta bertan parte hartu dezaten. Ziur gara parte hartuko dutela, ekimen horietan zein espontaneoki emango diren beste hainbatetan.

Durangon larunbatean, azaroaren 28an, goizeko 11:30ean dugu hitzordua, Intxaurre elkartearen aurrean, herrian zehar trikitilarien laguntzaz kalejira ezabatzaile bat eginez. Bukatzean luntxa egongo da guztiontzat. Animatu eta parte hartu!

Euskaraz biziz, Euskal Herri euskalduna eraiki!

Durangoko EHE

Eskerrik asko, Mikel, argipenengatik!

Eskerrak argitzeagatik gure artean ardiz moztrotutako otso maltzurak daudela (ni lasai nenbilen, baina... kontuz ibili beharko dugu, ezta?)

Eskerrak gogoratu diguzulako kanpoko arerioak ditugula, baina, batez ere, barruko arerioei aurre egin beharko diegula (edo digutela... Ez dakit ondo non kokatu behar naizen/nauzun).

Eskerrak gogoratzeagatik orain arteko debate guztietan gutxiengoek hartu dituztela erabakiak, debateei trufa eginez (agian, oraingoan zuen alderdietako begiraleak eskatu beharko ditugu).

Eskerrak zehaztu diguzulako pentsatzen duguna defenditu behar dugula (ala, agian, zuk pentsatzen duzuna?)

Eskerrak aipatzeagatik aldaketa egin behar dugula (falta izan zaizu zehaztea zein den egin beharreko aldaketa... Hori da, bai! Egin behar ditugun etxeko lan famatu horiek).

Eskertzen da guri begira egotea eta gure ekimenez arduratuta egotea... baina, zelan esan... lasai egon! Zuek zuenera (baduzue proposamen propiorik, ezta?)

Eskerrak, bai!

Maite Barreña - Ezker Abertzaleko Militantea

Ordu txikitik

Euskal Herrian bizi gara, eta herri zahar honetan ohituta gaude "ordu txikitako" gorabeherak bizitzera. Oraingoan, beste hainbat eta hainbat herrietan bezalaxe, Iurretan lehendik ere ezagutzen genituen "ordu txikitako" beste pasarte bat bizitzera behartu gaituzte.

Astearteko "ordu txikitik" Montoste Elkarteko lehendakariak Guardia Zibilaren bisita jaso zuen. Armatuta eta burua estalirik Iurretatik 500 kilometrotara dagoen Auzitegi Nazionalako agindu bati jarraituz, gure elkarte miatu behar zutela esan zioten gure lehendakariari. Ondorioz, goizaldeko 01:30ean gure bazkidea bere etxetik atera eta elkarte miatzeari ekin zioten.

Guardia Zibil hauek elkarte hankaz gora jartzen zuten bitartean "ordu txikitako" komunikazio sarea lanean hasi zen. Hamarnaka izan ziren Iurretan gau horretan dantzan aritu ziren telefonoak eta hamarnaka pertsona izan ziren lorik egitea lortu ezin izan zutenak. Baina gure ezinegona handitzen joan zen, minutuek aurrera egin ahala eta gure bazkide batzuen etxean telefonorik hartzen ez zutela ikustean.

Gutako batzuk etxe horretara hurbiltzea erabaki genuen, eta han topatu genituen burua estalita eta armaz lepo zeuden Polizi Nazionalak. Han jakin genuen gure elkarte bazkidea den Eñaut Aiartzaguena atxilotua zegoela, eta Poliziak bere etxea miatzen zebiltzala. Orduan jakin genuen Euskal Herriko beste hainbat tokitan beste eukal herritar batzuk antzeko "gertaerak" bizitzen ari zirela.

Atxiloketa eta miaketa hauen aurrean, Montoste elkarteak honako hau adierazi nahi du:

1. Argi eta garbi salatu nahi dugu Auzitegi Nazionalak gure elkarte miatu eta hankaz gora utzi izana. Are eta gehiago egoerak eskatzen ez zuten metodoak erabiliz: gauzez eta armaturik, Guardia Zibila gure elkarte asaltatu izana, Iurretarren artean ezinegona eta izua zabalduz.

2. Elkartasun osoa helarazi nahi diegu Eñaut Aiartzaguena gure bazkideari eta euren senide zein lagunei. Halaber, inkomunikazio erregimenak eta legeria antiterroristak eragiten duten eskubideen urraketa salatu nahi dugu. Argi demostraturik dago inkomunikazioak tortura ahalbideratzen duela.

3. Eñaut eta bera bezala euren jardun politiko eta sozialagatik atxilotuak izan diren gazte independentistak berehala aska ditzatela exijitzen dugu.

4. Elkarte hau osatzen dugun bazkideok atxilotuen askatasuna eskatzeko antolatuko diren ekimen guztiekin bat egiten dugu.

Bukatzeo Aiartzaguena - Brabo sendiari badakiten zerbait gogoratu nahi diegu, baina, bereziki, Eñauti. Beti ondoan izango gaituzue, behar duzuen edozertarako prest. Animo!

Montoste elkarte

Sei hankako mahaia



Juan José Gastañazatorre Alderdi Popularra

Azaroaren 25eko Eudelen adierazpena

Eskerrak, gure irudiko Eudelen azaroaren 25eko adierazpenean agertzen ez zirene ideiak eta kontzeptuak aurkezteko aukera eman zitzaigun taldeoi!

Oraingoan idatziaren helburua gazteen arazoarekin sentsibilizazioa denez, popularrok harritu egin gintuen testuan familia ez aipatzeak, hezkuntzarako erreferentzia zuzena baita, gazteek bizitzan nola jokatu ikasteko lehen erreferentziak jasotzen dituzten gunea, eta, ez aipatzea, gutxienez, arraroa irudituzitzaigun.

Ezzen arazorik izan. Talde Popularrek gure argudioa agertu genuen eta gure ekarpena adierazpenean sartu zen.

Genero biolentziagizarte espainiarrek aurre egin beharreko arazorik larrienetakoa da, eta ondo deritzogu askotariko kolektiboek zuzenduriko sentsibilizazio kanpainak egiteari. Durangoko Talde Popularra luzaroan dabil diru-atal bat sortzeko eskatuz, kanpainak egin daitzen, ez azaroaren 25ean bakarrik; aurrekontuen eztabaidan aurkezten zuten zuzenkerari, ezerezean geratu zena gero.

Hezkuntzarako erreferentzia zuzena izanik, adierazpenean familia aipatu beharra zegoen

Ez dugu aurkako iritzirik eman, proposamena geurea izan baitzen. Genero biolentziari aurre hartzeko helburua duen edozein ekimenek gure babesa izango du, gazteei zuzendua izan, familiei, eskoletan, munduari zein adinekoei; kontuan hartzen den taldea azken hori, gure ustez, lehentasuna behar lukeen arren, euren bizi-erreferentziagatik gure erreferente baitira, eta, zoritxarrez, gizonen andreengana indarkeria kasuak ugariak dira.

Ea ekimen guztiok gizartearen eragiten duten, eta, behingoz, arazo konpontzen doala ikusten dugun, denon ardura baita.

* Erredakzioan itzulita



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko azaroaren 27a - 8. urtea - 353 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

AGENDA

> ANBOTOkO agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 29an, 17:00etan HIRIAN BARRENA

Mundua ulertzeko hainbat ikuspegi, makina bat kultura, hainbat literatura barri, horrenbeste ipuin ezezagun... batzen ditu hiriak. Eten barik handitzen doazen izaki bizidunak dira, munduko hainbat bazter eta txokotik etorritako geroago eta jente gehiago batuz. *Irudimendiko hiria* obran hainbat herrialdeko ipuin tradizionalak nahastuko ditu Gorakadak, istorio modernoak, dibertigarria eta mestizoa eskainiz. Elorrion aurkeztuko dabe.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> **'Euskarazetamol' (Ez dok hiru bikoteatroa)**, azaroaren 27an, 22:00etan, Kultur Etxean. Euskararen Nazinoarteko Eguna dela-eta.



>> **'Korri, Xalto eta Brinko'**, azaroaren 29an, 12:30ean, Olakueta plazan. Euskararen Nazinoarteko Eguna dela-eta.



ELORRIO

>> **'Rosas Rojas' (La Papa)**, azaroaren 28an, 19:30ean, Arriola antzokian. **'Irudimendeko Hiria' (Gorakada)**, azaroaren 29an, 17:00etan.

ERMUA

>> **'Ate joka' (Txalo Produkzioa)**, azaroaren 27an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean. **'Ez ikutu nire eskuak' (Valeria Guglietti)**,



azaroaren 28an, 17:00etan.

ZORNOTZA

>> **'Negra' (Meridional Teatro)**, azaroaren 27an, 21:00etan, Zornotza Aretoa. Andreganako Indarkeriaren Kontrako Nazino-arteko Egunaren haritik.

BERBALDIA

ABADIÑO

>> **Sexualitatea eta emakumea: 'Empoderamiento: El orgullo de ser mujer'**, abenduaren 2an, 18:00etan, Errota kultur etxean. Hiru egun aurretik eskatuta, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 87 74).

BERRIZ

>> **Euskararen erabilerari buruzko kale neurketa**, abenduaren 1ean, 19:00etan, Kultur Etxean. Euskararen Nazinoarteko Eguna dela-eta.

ELORRIO

>> **'Euskal Estatuaren Sorrera eta Zanaketa' berbaldi zikloa: '1512**

Nafarroako konkista' (Gaizka Aranguren), abenduaren 2an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ZALDIBAR

>> **'Jostailu egokiak aukeratzeko gomendioak'**, abenduaren 3an, 18:00etan, Zapatublaiko lokaletan.

BERTSOAK

BERRIZ

>> **Bertso ikuskizuna: 'Mende baten aldarriak' (Xabier Amuriza + Jon Maia)**, abenduaren 3an, 20:00etan,



Kultur Etxean. Euskararen Nazinoarteko Eguna dela-eta.

ERMUA

>> **Bertso saioa: Uxue Alberdi, Xabi Paya, Maialen Lujanbio eta Joxe Agirre**, azaroaren 28an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean. Euskal Birusa euskara elkarteak eratuta.

BESTEAK

ABADIÑO

>> **3. Adinaren XVII. Kultur Astea: meza**, azaroaren 28an, 13:00etan. **Anai arteko bazkaria**, 14:00etan. Bazkide nagusiei omenaldia. San Trokaz elkarteak eratuta.

BERRIZ

>> **Euskararen aldeko murala**, azaroaren 27an, 17:00etan, Olakueta plazan. **'Zazpi astoren gainean' ikuskizun herrikoia**, azaroaren 28an, 19:00etan, Olakueta plazan. **Kantu afaria, Jon Enbeitagaz**, 22:00etan, Pedro Juan jatetxean. Euskararen Nazinoarteko Eguna dela-eta.

DURANGALDEA

>> **Bilboko Arte Ederren Museora bisita**, abenduaren 1ean. Elorrio, Atxondo, Iurreta eta Zelaietako (Abadiño) herritarrei zuzenduta Durangaldeko Mankomunitateko Pertsona Adinduen Sailak eratuta. (94 620 05 46 / 94 620 18 60).

DURANGO

>> **Kontuleku**, abenduaren 19a artean, zapaturo, Udal Liburutegian: 11:00etan (0-3 urte) eta 12:30ean (4-6 urte). Bibliotekan emon leiteke izena (94 603 00 41 / liburutegia@durango-udala.net).

>> **Astronomia Gelara bisita gidatuak**, azaroko zapatuetan, 11:00etatik 13:30era, Izarra elkarteak eratuta. Eguraldiak lagunduz gero, **astroak ikusteko aukera**, 20:00etan.



DEIAK

DURANGO

>> **Genero biolentziaren aurkako elkarretaraztea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andreak elkartea).

>> **Abenduko dantza bazkaria, 'Fasio oroituz'**, abenduaren 19an, 14:30ean, Plateruenean. Izena emoteko, 30 euro: BBK: 2095-0233-10-9109943783.

>> **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharreen. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

IURRETA

>> **Igerilekuetako, euskarazko, UEuko eta musika ikastaroetarako dirulaguntzak eskatzeko**, abenduaren 4a arte, Ibarretxe kultur etxean. Baita **igerilekuetako abonuetarako** be (94 620 03 42).

ZORNOTZA

>> **'Hurbil zaitez antzokira!'**: abenduaren 2an, 19:30ean, Zornotza Aretora bisita, "Ganso"ren (Gorka Zero-Markeliñe) eskutik.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> **'Guatemalako andren egoera' (Bateginez)**. Azaroaren 28a arte, Errota kultur etxean. Andreganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren haritik.

BERRIZ

>> **Margoak eta grabatuak. Javier Gorosarri**. Azaroaren 29a bitartean, Kultur Etxean.



DURANGO

>> **'Lekuak'. Amaia Alonso**. Azaroaren 30a bitartean, Andragunean.

ELORRIO

>> **XX. 'Errebonbillo' Margo Lehiaketako lanak**, azaroaren 28a artean, Iturri kultur etxean.

IURRETA

>> **Margoak. Ignacio Ruiz de Arkate (Iurreta)**, azaroaren 27a bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

ZALDIBAR

>> **Jostailu erakusketa**, abenduaren 1ean eta 2an, 16:30etik 19:30era, Zapatublaiko lokaletan.

ZORNOTZA

>> **'Impresiones'. Esteban Cabrilo**. abenduaren 12a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

>> **Autodefentsa**. Azaroaren 27an eta 28an, Traña-Matieta eskoletako gimnasioan: 27an, 16:00etatik 20:00etara, eta 28an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Izen-emotea Errota eta Txanporta kultur etxeetan. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren haritik.

BERRIZ

>> **Kantu ikastaroa**. Abenduaren 2an hasita, 19:00etan, Kultur Etxean. Izena emotea azaroaren 27a arte, Udaleko Euskara Sailean. Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta. **'Asaldatzearen kontra erantzuna: emakumeenganako indarkeria' tailerra**. Azaroaren 27an, 16:30ean. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren haritik.

DURANGO

>> **Euskal Dantzak**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.

ELORRIO

>> **Dantza modernoa, sabel-dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak**. Iturri kultur etxean (94 603 20 32).

IURRETA

>> **'Gure Barik' bertso eskola**. Barikuro, 18:00etan (12-18 urte). Eguenero, 20:30ean, (18 urtetik gora). Gazte Asanbladak eratuta.

IKUS-ENTZUN

IURRETA

>> **'Gizon eta emakumeen berdintasunaren alde', 2009ko**

martxoaren 7ko argazkiak, azaroaren 27a arte, Ibarretxean. Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren haritik.

IPUINAK

ABADIÑO

>> **Ipuin kontalaria**, abenduaren 3an, 17:30ean, Txanporta kultur etxean.

DURANGO

>> **Ipuin kontalariak: Txomin Magdalena**, azaroaren 28an, 17:00etan (3-5 urte) eta 17:30ean (6 urtetik gora), Liburutegian. **Ana Griott (helduentzat)**, 20:00etan.

IURRETA

>> **Maite Franco ipuin kontalaria: 'Zergatik ote?'**, azaroaren 27an, 20:00etan, Udal Liburutegian.



JAIAK

ZALDIBAR

Neguko San Andresak

>> **XIX. Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanak**. Azaroaren 27tik 29ra, 18:00etatik 20:00etara, udaletxe zaharreen; 28 eta 29an baita 12:00etatik 14:00etara be bai, eta 30ean goizez, bakarrik.

>> **Pintxoaren eguna**, azaroaren 27an, 18:30ean. Helmugak eratuta. **Jaietako txapligoa**, 19:00etan, Udaletxetik. Segidan, **Koral elkarteko trikitilari eta buruhandiekin kalejira**; 22:00etan, pilota partiduak.

>> **Euskal preso politikoen eskubideen alde kontzentrazioa**. Azaroaren 27an, 20:00etan, Udaletxean; 20:30ean, **txupinazoa eta luntxa** Gaztetxean. 22:30ean, **konzertuak: Uxue (Durango) + Iban (Zornotza)**.

>> **Saskibaloia**. Azaroaren 28an, kiroldegian. Julza II-Irlandesas II, 16:30ean (neskak); 18:30ean, Zaldua-Ugeraga (gizonak).

>> **'Entremeses variados' (Izarraitz antzerki taldea)**. Azaroaren 28an, 21:30ean.

>> **Herri-bazkaria**, azaroaren 28an, 14:00etan, Gaztetxeak eratuta; **familia argazkia**, 15:30ean, eta, 16:00etan, **Javier Mañonen bakarrizketa**; 18:00etan, **kantu**

poetea, eta, 22:30ean, **kontzertua: Namek Planet + Disorders + Talde Sorpresa.**

- » **Arku-tiro txapelketa, XII. San Andres Saria**, azaroaren 29an, 09:30etik 14:00etara.
- » **Mountain Bike martxa**. Azaroaren 29an, 10:00etan, Udaletxetik. Izena emotea doan. Ibilbide bi eratu dira (10 km / 27 km). **Eskalatzeko horma umeentzat**, 18:00etatik 20:00etara.
- » **Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XVIII. Txapelketako finala**, azaroaren 29an, 17:30ean. **Irabazleekin kalejira**, 30ean, 11:00etan.
- » **Puzgarriak**. Azaroaren 30ean, 11:00etatik 13:00etara, kiroldegian. **Meza nagusia, Koralak lagunduta**, 12:00etan, San Andres elizan. **Jubilantentzat bazkaria** 14:00etan, Goierriko auzo etxean. **Pilota partiduak**, 18:30ean, Olazarren.

establezimenduei zuzenduta. Izena emotea, abenduaren 18a arte (94 681 81 42 / 94 620 03 42). Erakustokiak abenduaren 25etik urtarrilaren 5era egongo dira atonduta. Sariak: 1.a 150 euroko erosketa-txartela; 2.a 75 eurokoa.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Astelehenero, 18:15ean, Udal Liburutegian.

MUSIKA

DURANGO

» **Etxe + The Uskis**. Azaroaren 27an,

22:00etan, Plateruenean. **Anni B Sweet + Thee Brandy Hips**, 28an.

» **Musika hamabostaldia: 'Kantika Sakra' (Kantika Korala-Leioa)**,



azaroaren 29an, 19:00etan, Uribarriko Andra Maria Basilikan.

» **III. Durang[h]ots: I.C.M. + Jam Session**, abenduaren 3an, 21:30ean, Plateruenean: Iñaki Jaio (bateria), Marcelo H (baxua) eta Carlos Velasco (kitarra). Bartolome Ertzilla musika eskolaren eskutik.

ELORRIO

» **Malo + Narrats**, azaroaren 28an, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean.

ZORNOTZA

» **Sesino elektronikoa: Dj Trampas**

ZINEKLUBA

ABADIÑO

» **Umeendako: 'Goazen'**, azaroaren 27an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean.

BERRIZ

» **'Sukaldeko kontuak'**, azaroaren 29an, 19:00etan, Kultur Etxean. Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta.

DURANGO

» **'Celda 211'**, abenduaren 3an, 20:30ean, Zugaza zinemian.

ZORNOTZA

» **'El primer día del resto de tu vida'**, abenduaren 1ean, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

LEHIAKETA

ABADIÑO

» **Gabonetako Postal Lehiaketa**. Azken eguna abenduaren 11. Ikasketa gaiak eta diplomak banatuko ditue sari legez; 16 urtetik gorakoen artean, baina, 200 euro eta 150 euroko sariak emongo ditue, eta diploma. Saritu bako herriko egilearentzat akzesita be bai: 150 euro. Informazioa, Errota eta Txanporta kultur etxeetan (94 466 94 16 / 94 620 36 47).

IURRETA

» **Gabonetako Postal Lehiaketa eta Olentzerori Gutun Lehiaketa**. Azken eguna abenduaren 24a, Ibarretxan edo +Dendak-en egoitzan —izen-abizenak, adina eta telefonoagaz—. Iurretako edo bertan ikasten daberen 13 urte artekoek zuzenduta. Saria: +Dendak-en opari txartelak, 90, 60 eta 30 eurokoak (atal bakotxean).
» **Erakustoki Lehiaketa**, Iurretako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu



Azaroaren 28an, 22:00etan

ANNI B SWEET, FOLK ETA POP DOINUAK PLATERUENEAN

Anni B Sweet izenagaz ezagun egin den Ana Lopez folk-pop abeslariak gero eta jarraitzaile gehiago batu ditu MySpacen eskegitako zenbait abestigaz. Aurten, barriz, lehenengo diskoa kaleratu dau: *Start, Restart, Undo*. Eta bertan jasotakoak entzun eta gozatzeko aukera eskainiko dau, asteburuan, Plateruena kafe antzokian. Zazpi urte zituela hasi zen bere lehenengo kantak sortzen Malagako (1988) abeslaria, eta hori agerikoa ei da haren jarraitzaileen ustetan. Bezperan, Etxe abeslari berriztarra eta The Uski's taldea igoko dira Platerueneko oholiza gainera.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

2012

Zuzendaria: Roland Emmerich
barikua 27: 22:00
zapateria 28: 22:30
domeka 29: 19:30 / 22:30
astelehena 30: 22:00
martitzena 1: 20:00



Planet 51

barikua 27: 19:00
zapateria 28: 17:00 / 19:30
domeka 29: 17:00
astelehena 30: 19:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Malditos Bastardos

Zuzendaria: Quentin Tarantino
zapateria 28: 22:30
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Millenium 2: la chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina

Zuzendaria: Daniel Alfredson
zapateria 28: 22:30
domeka 29: 20:00
astelehena 30: 20:00



Umeendako zinema

Harry Potter y el misterio del principe

domeka 29: 17:00

BOTIKAK

- Barikua, 27**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
Zapateria, 28
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / San Roma / De Diego / Gaztelumendi / Navarro / Sagastizabal / Mugica (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Domeka, 29
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Astelehena, 30
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Martitzena, 1
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguazena, 2
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Eguena, 3
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

- Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

- Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

12° BARIKUA

Temperaturak beherako bidean jarraituko dau. Zerua ia erabat estalia egongo da eta zirimiria egingo dau. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, ostegunean baino zakarrago.

13° ZAPATUA

Hobera egingo dau eguraldiak. Zeruan hodei gutxiago azalduko da eta ostarteak zabalduko dira. Gainera, ateri eutsiko deutso egun osoan. Haizea hego-mendebaldetik etorri eta zakartu egingo da.

13° DOMEKA

9° ASTELEHENA

9° MARTITZENA



zurekin



Bialdu zure oporraldiko argazkiak eta EROSKI BIDAIAKen eskutik 'Villa de Llanes' hotelean, asteburu bateko egonaldiko zozketan parte hartu!



Llanes • Asturias

bialdu zure argazkiak ondoko email honetara:
astekaria@anboto.org

KIROLAK >



Argazkia: Ana Dominguez

Kulturalak zazpi jardunaldi daramatza, segidan, galdu barik; gainera, azkenengo laurak irabazi egin ditu. Bolada on honek play offa jokatzeko eskubidea ematen duen laugarren tokira igo du Durangoko taldea. Tabira gotorleku bilakatu dute, eta zaleen artean ere ilusioa piztu da aspaldiko partez. Hala ere, klubetik oinak lurrean mantentzeko eskaera egin dute: "Denboraldi hasieran markatutako helburutik ez gara aldendu. Mailari eusteko adina puntu batzea da gure eginbeharra. Horiek batu ondoren, jakina, ez diogu ezeri muzinik egingo", azaldu du Axier Intxaurrega entrenatzaileak.

Intxaurregari zerbait leporatu ezin bazaio, jokamoldea argi

Oinak lurrean

ez izatea da. Liga hasieratik jokatzeko eredu erasokorra ezarri du, eta emaitzak kontrakoak izan direnean ere bere filosofiari eutsi dio. Kulturalaren dinamika erasokorra da, eta partiduro izaten dituzte golak sartzeko aukerak. Azken lau garaipenetan 11 gol sartu dituzte; horietatik lau Retuertoren kontra, joan zen asteburuan. Defentsan "badugu zer hobetua", onartzen du, "oraindik gol lar sartzen digute".

Dena aipatu behar bada, garaipenak sailkapeneko beheko tokietan dauden taldeen kontra lortu dituzte, Salvatierra eta Retuerto azken sailkatuen kontra, kasurako. Horiei falta zaien kalitatea eta eraginkortasuna dute Kulturalaren hurren-

Kulturalak irabazi egin ditu azken lau partiduak, eta play off postuan dago

go arerio biek. Bihar Amorebieta bigarren sailkatuaren kontra jokatu dute etxetik kanpora. Ondoren, liderrak, Real Sociedad Bk bisitatuko du Tabira. Kulturalaren benetako maila jakiteko partidu aproposak dira.

Zorionez, Intxaurregak ia talde osoa jokatzeko moduan du. Julen Gonzalo eta Eriz diradudan dauden bakarrak. ■ J.D.

24 Abadiñok lauko finala du bihar

Sokatira denboraldiari ekin dio Abadiñok, eta bihar lehenengo finala jokatu dute Probalekuan; 320 kilora arteko txapela lortzen ahaleginduko dira

25 Cafés Baquéko finalak etzi

Matienan erabakiko dira aurtengo Cafés Baqué Pilota txapelketako irabazleak. Kadeteetan Ibai Arratibel da faborito eta gazte mailan Iban Jauregi

Denboraldiko lehenengo txapelaren bila aterako dira

Abadiñok etxean jokatu du 320 kilora arteko sokatira finala bihar



Biharkoa dute denboraldiko lehenengo txapelketa Abadiño Sokatira Taldeko tiralariak. K. Aginako

Abadiño Sokatira Taldeak ekin dio goma gaineko denboraldiari, eta bihar, 17:00etan, 320 kilora arteko lehenengo finala jokatu du, Zelaletako Probalekuan. Abadiñok talde bi sailkatu ditu finalerako, eta helburua "irabaztea eta talde biak podiumean sartzea" dela dio Edu Mendizabal entrenatzaileak.

Abadiñarren plenoa eragozten saiatuko dira finalera sailkatu diren gainerako lau taldeak: Ibarra, Auzolan (Astigarraga), Sokarri (Arrigorriaga) eta Barrundia (Dulantzi). Auzolan ez beste hirurak "arerio gogorak" izango dira, Mendizabalen ustez.

Finaleko protagonistak jardunaldi biko sailkatze fasearen

Ibarra, Auzolan, Sokarri eta Barrundia izango dituzte aurkari Probalekuan

Irabaztea eta talde biak lehen hiruen artean sailkatzea dute helburu abadiñarrek

ondoren erabaki dira. Lehenengoan —Astigarragan jokatuakotan— Abadiñoko talde biek batu zituzten punturik gehien. Arrigorriagako bigarrenen, B taldea lehenengo geratu zen, eta A taldea, ustekabea, bosgarren: "Ez zuten egunik onena izan", azaldu du Mendizabalek. Hala ere, talde biek lortu zuten finalerako txartela.

Datorren larunbatean 300 kilora arteko txapelketa hasiko dute. Zeberion jokatu dute lehenengo jardunaldia, eta Oiarzunen bigarrena. Guztira, 13 taldek parte hartuko dute eta horietatik sei sailkatuko dira abenduaren 19an Arrigorriagan jokatu den finalerako. ■ J.D.

Larrasoloetaren urteurreneko Xake Txapelketa

Durango Larrasoloeta Xake Taldeak 30 urte bete ditu aurrean, eta urteurreneko ospakizunen barruan Eskolarteko Xake Txapelketa antolatu du etzirako. Partidak Landako Kiroldegian jokatu dituzte.

Txapelketak 10:00etatik 14:00etara garatuko da, eta 15 urtera arteko zuzenduta dago. Guztira, 100 bat gazteko batuko dira, Larrasoloetatik jakinarazi dutenez. Lehenengo sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte, baina partaide guztientzako egongo da opariren bat.

Bost-sei partida jokatu dituzte gaztetxoek erlojurik gabe, benjamin, kimu, haur eta kadete mailetan. ■ J.D.

Sasikoak lehen porrota eragin dio liderrari

Galdu barik zegoen Zierbenari irabazita lortu du lehenengo garaipena Sasikoak

David eta Goliaten kondairaren parekoa izan zen joan zen asteburuan Sasikoak eta Zierbenak Landakon jokatu zuten partidua. Zierbena liderra partidurik galdu gabe zetorren; Durango taldeak, aldiz, puntu bakarra zuen hamargarren jardunaldiaren atarian. Handiak txikia jango zuela ematen zuen, baina Sasikoak, borondatez eta kastaz betetako partiduan, Goliat ahaltsua menderatu zuen (5-4).

Durango kontrerasora antolatu zuten partidua. Horrela iritsi ziren golik gehienak. Partiduaren hondarrea, markagai-

luak launakoa erakusten zutenean, Zierbenari penalti bikoitza geratu zion Fernando Otero atezainak, ordura arteko lan bikaina borobilduz. Hurrengo jokaldian, durango garaiaren gola sartu zuten beste penalti bikoitz baten bidez.

Oraindik larri

Garaipenarekin arnasa hartu du Sasikoak, baina egoera larri jarraitzen du. Azkeneko daude eta puntuak behar dituzte zulo-rik lehenbailehen irteteko. Bihar Aretxabaletaren kantxan jokatuko dute. ■ J.D.

Mikel Bilbao •
Radio Euskadiko kazetaria



Bota sutara egurra

Durango beste ordezkari bat dauka pilota profesionalean: Iñaki Larrinaga. Elorriko atzelariak Aspe-rekin debutatu dau laster, Eibarko promotoraren orbitan hainbat urte emon ondoren.

Ondo egindako lanaren saria da. Esango neuke afizionatu mailako atzelarien artean bera dela gaur egun gehien nabarmentzen dena. Esku biek ino luza dau pilota, eta kokapenagaz zituen arazoak konpondu ditu. Aurtengo denboraldian Biharko Izarrak, Bergarako Torneoa eta 22 urtez azpiko GRAVNa irabazi ditu. Pazientzia be izan dau. Izan be, denok uste genduen 2008ko udan debutatuko ebala, baina Aspek Beroiz edo Cecilio lako atzelarien alde apostu egin eban.

Iñakik ez eban etsi, eta itxaronaldiak zailtzeko balio izan deusala esan leiteke, profesionaletarako saltoa sasoirik onenean emoteko. Orain debuterako data erabakitzea bakarrik falta da. Diario Vasco eta Olazar txapelketetan egiten dauenaren baitan egongo da; bietan finalerdietan dago. Abenduaren 26an 21 urte egingo ditu. Aurten Olentzero aurreratu egin jako; ikusiko dogu zakuan beste txapel birendako tokirik badaukan.

Larrinagak Eneko Perosanzen bidea segitu dau. Berriztarra Amantegigaz Alba Hotel Golf irekiko finalerdi iritsi da. Ireki hori Ander Antxiak irabazi dau —Mitxelena—, eta Frontiseko rankingeko gorenean segitzen dau. Beraz, poz bikotxa dauagu. Eskualdeko pilotari barri batek debutatuko dauelako eta dagoeneko bada-bilzenek distira egiten dabelako hainbat torneotan.

* Erredakzioan itzulia

Adituarentxokoa

Hasiera txarrak aukera barik utzi du Prieto

Bizkaiko banakako azken txanpa bikaina ez da nahikoa izango abadiñarentzat

Bizkaiko Banakako Txapelketa-ko azken jardunaldiaren faltan, Alain Prieto xakelari abadiñarra irabazteko aukera barik geratu da. Azken hiru partidak irabazi ditu, baina lehenengo biak galdu zituen, eta hasiera txar haren zama handiegia izan da. Oraindik hirugarren geratu daiteke, bihar irabazi eta beste emaitzek laguntzen badiote.

Lehenengo mailan Aitor Arabiotorre Zaldi Baltzako

xakelariak lortu du igoera. Bigarrenen ere Larrasoloeta-ko Gumersindo Morenok matematikoki igoera lortu du, jardunaldi baten faltan. Igotzeko borrokan darraite Jesus Maria Rubio, Zigor Etxenagusia, Eduardo Ogando eta Jorge Porrasek. Azkenik, hirugarrenean, Lorien Barbero Zalbi Baltzako seguru igoko da; federazioak jakinaraziko du bigarrena ere igoko den ala ez. ■ J.D.



Txapelketako jardunaldiak Elorrion jokatu dira. Zaldi Baltza

Erritmo biziko partiduak espero dira etziko Cafés Baqué finaletan

Kadete eta gazte mailako lau finalistek indarraren legea ezarri zuten finalerdietan



Ezkurdiak lanak izan zituen Arrieta kanporatzeko. Kepa Aginako

Domekan XXIV. Cafés Baqué Pilota Txapelketa-ko finalak jokatu dituzte Matienako frontoian, 11:00etatik aurrera. Kadete mailan Ibai Arratibel eta Eric Jaka neurtuko dira; gazteetan Iban Jauregi eta Joseba Ezkurdia. Laurek, hein handian, kolpeari esker menderatu zituzten aurkariak finalerdietan. Beraz, finalean pilota bizien darabilten pilotariak izango dira aurrez aurre.

Finalak Matienako pilotalekuan jokatu dituzte domekan, 11:00etatik aurrera

Apatan jokatuak partiduetan Ibai Arratibelek 18-15 irabazi zion Danel Elezkano zarata-moztarrari. Final-laurdenetan moduan, Arratibelek asko eman zuen eta dejada zehatzekin amaitu zituen tanto asko.

Eric Jaka lizartzarra errazago sailkatu zen finalerako, Estebanen kontra (18-5). Jaka pilotari dotorea da, eta, ezker zein eskuma, ondo luzatzen du pilota. Dena dela, Estebanek erraztasun handiak eman zizkion.

Ikusitakoaren arabera, kadete mailako txapela janzteko

Arratibel da faborito nagusia. Kolpe zakarragoa du, dejada zoragarri darabil, eta pilotari garaia izanagatik ondo mugitzen da kantxan.

Gazteetan Iban Jauregik beste erakustaldi batekin kanporatu zuen Oier Egiguren bilbotarra (22-5). Pilotakada galantak eman eta erreperitorio aberatsa erakutsi zuen aurrean; di-da amaitu zuen partidua.

Ezkurdiak, aldiz, gogotik lan egin behar izan zuen Arrieta menderatzeko (22-15). Arbizuarrak tantoa erraz hartzen zuen mendea, baina markinarra bikain ibili zen defentsan. Pilotan egon zen partiduko gakoak. Ezkurdiak material motela kantxaratu zuen, mugitzea kostatzen denetakoa, eta horrexegaz lortu zituen tanto ilara luzeenak.

Finalerako Jauregi da faborito. Egia da finalera arteko partiduetan ez dutela behartu, ez dugula presiopean ikusi, baina edozein egoerari aurre egiteko adina klase duela dirudi. ■ J.D.

Kadeteetan Arratibel eta gazteetan Jauregi dira txapela janzteko faborito nagusiak

Errugbi derbia Durango eta Elorrioren artean

Bihar derbia jokatu dute Elorriok eta Durango Ilarduya Bk Euskal Ligan. Talde biak hirugarren eta laugarren daude, hurrenez hurren. Partidua hasi aurretik minutu bateko isilunea gordeko dute Paul Larralde Baquedano gogoratuz.

DRTri ondo letorkioke garaipena beheko postuak uxatzeko. Joan zen asteburuan, 18-15 menderatu zuten Arrasate. Melean zuten nagusitasuna aprobetxatuz, lehenengo zatian hiru entsegu lortu zituzten. Bigarrenean Arrasate ahalegindu zen, baina alperrik.

Elorriok berdindu egin zuen Bera Beraren kontra (13-13). Partidua amaitzeko gutxiren faltan 3-13 aurretik zihozten, besteak beste, Jonanderren entseguari esker, baina ezin izan zioten emaitzari eutsi. ■ J.D.

Aurreko jardunaldian irabazi egin zuen DRTk eta berdindu Elorrio Rugby Taldeak

Durangoko judoka gazteak Bilbon izan ziren

Durangoko Judo Klubak 13 urtez azpiko klubaren arteko txapelketan parte hartu zuen joan zen asteburuan. Denboraldiko lehenengo txapelketa zenez, sasoi puntua hartzea izan zuten helburu nagusi. Honako judoka gazteek osatu zuten Durangoko taldea: Amaia Baños, Maria Bazan, Maider Cerralbo, Eider Vivanco, Eneko Díez, Daniel Grigore eta Aitor Vivancok. ■ J.D.



Denboraldiko lehenengo txapelketa izan zen Bilboko.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak

1- Real Sociedad B...31	15- Leioa.....18
2- Amorebieta.....30	16- Audio.....17
3- Beasain.....26	17- Lagun Onak.....15
4- Kulturala.....24	18- Eibar.....14
5- Zamudio.....24	19- Retuerto.....13
6- Amurrio.....23	20- Salvatierra.....6
7- Basconia.....23	
8- Elgoibar.....23	
9- Gernika.....22	
10- Zalla.....22	
11- Aretxabaleta.....21	
12- Arenas.....20	
13- Santurtzi.....18	
14- Portugalete.....18	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Bidegintza.....7 (+72)
2- Easo.....5 (+39)
3- San Ignacio.....5 (-14)
4- Padura.....4 (+30)
5- Baskonia Fund.....4 (+12)
6- Seky.es.....4 (-30)
7- Zomotza.....3 (+5)
8- Tabirako.....3 (-10)
9- Legarzia.....3 (-33)
10- Bide Bide.....2 (-71)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Ardoi8 (+159)
2- Bera Bera ...8 (+90)
3- Gernika7 (+133)
4- Las Gaunas ...6 (+12)
5- Tabirako ...5 (+60)
6- Deusto Loiola .5 (+38)
7- Cafés Aitona .5 (+21)
8- Elexalde5 (0)
9- Obenasa5 (-15)
10- Abaroa4 (+26)
11- Arabako EHU 4 (-20)
12- Getxo 4 (-67)
13- Atletico SN 3 (-26)
14- San Ignacio 2 (-138)
15- Artieda 1 (-111)
16- Irlandesas 0 (-162)



Durangoko Kulturalak 25 gol sartu ditu eta 18 sartu dizkiote orain arte

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Gallarta

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Elorrio - Gazteluzarra

Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Bizkerre

Zapatuan, 15:30ean, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Berriz B - Busturia

Zapatuan, 16:30ean, Berrizburun

Ezkurdi - Azkorri

Zapatuan, 18:00etan, Arripasuetan

Extremeño - Sondika B

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Artibal

Domekan, 17:00etan, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA NAZIONAL B MAILA

Elorrioko Buskantza - Golerri

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa B - Kanikas Infracoman

Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

GOREN MAILA

Mallabia Bastida - Goiz Argi

Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Abadiño - Gaztetxe - Freunde

Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko kiroldegian

Presion Break - Colegio Vizcaya

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Mendibeltz - Lagun Onak B

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

Gu Lagunak - Dantxari

Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOA LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako - Padura

Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Julza Zaldia - Ugeraga

Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroldegian

Anbotopeko - Leioa

Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

BIGARREN ERREGIONALA (Emakumeak)

Zaldia - Irlandesas

Zapatuan, 16:30ean, Zaldibarko kiroldegian

ERRUGBIA EUSKAL LIGA

Elorrio - DRT B

Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko errugbi zelain

PILOTA

XXII. OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian

Garralda - Etxeberri

Binaka

Mendizabal-Irureta / Yoldi-Linzoain

Astehelenean, 18:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

Lau t'erdian

Jauregi - Aurtenetxe

Binaka

Larrañaga-Kastillo / Elezkano-Landaburu

Eguenean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

AMALURRA[>]



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Ekorropak denda barria zabaldu dau Durangon, arropa birziklatuz

Denda barria zabaltzearen helburua Durangoko biztanleei zerbitzu hobea eta zabalagoa eskaintzea da

2008an ia zortzi milioi jantzi, oinetako eta osagarri birziklatu zitueen Zamudioko birziklatze lantegian

Atzo inauguratu eben denda barria; Koopera, Caritas eta Durangoko Udalak parte hartu eben ekitaldian

Hamar urte pasatu dira Ekorropak Durangon lehenengo denda zabaldu ebantetik, eta atzo bertan haren ordezkia inauguratu eben, ez oso urrun. Izan be, Artekalen bertan zabaldu dabe zerbitzua. Denda honetan birziklatutako arropak aurkitu geinkez, ekologikoki ekarpena eginez. Proiektu honek izaera soziala be badauka. Ingurumen arloari jagokonez, aurrerapena ekartzeaz gainera, Ekorropa dendek 64 lanpostu sortu ditue dagoeneko, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dagoen sektoreetako kideentzat.

Denda barria zabaltzearen helburua Durangoko biztanleei zerbitzu hobea eta zabalagoa eskaintzea da, arduradunek azaldu dabenez. Honen bitartez bost lanpostu sortu dira, eta 260 pertsonak baino gehiagok

laguntzen dabe egitasmoan. "Moda eta kalitatea eskura dagoz, prezio onean", argitzen dabenez. Produktzio prozesuak aukera emoten dauen besteko merke saltzen da arropa denda honeetan.

Birziklapena

Jantziak biltzeko ontziak dagoz katean, eta hortik batu ostean Zamudioko lantegira eroaten ditue. Bertan tratatu eta dendarako bidea hartzen dabe jantziek. Horrelako arropak erosiz, jantzi bat egiteko isurtzen diren gasak ez isurtzea saihesten da; zuhaitz batek lau egun beharko leukez kalte hori garbitzeko. 2008an, 2.463,23 tona ehungai kudeatu zitueen Zamudioko lantegian. Argiago azalduz, ia zortzi milioi jantzi, oinetako eta osagarri.

Koopera gizarte sareko Josetxu Gonzalez, Bizkaiko Caritaseko Ana Sofia Telletxeak eta Durangoko alkate Aitziber Irigorasek hartu eben hitza atzo, inaugurazino ekitaldian. Gonzalezek "denda hobea eta barriagoa" zabaldu dabela esan eban, eta eskerrak emon eutsazen lagundu daben guztiei. Telletxearen eritziz, Ekorropa dendak tresna oso garrantzitsuak dira gizarte laguntzan, eta denda barri honi esker, "Durangoko gizartearengandik hurrago egongo gara".

Aitziber Irigorasek "poztasuna" agertu eban irekiera zela eta. Udalak "Proiektu hau gogotsu" hartzen dauela adierazo eban, euren lankidetzaz azaltzerakoan. Ingurumenagaz eta gizarteagaz dituen helburuak nabarmendu zituen.



Cil Cafetto

by ^{personal} espresso

5 kafe barietate ezin hobe kafetera bakar batean?

Espresso profesionala
Dosi bakarreko Personal Espresso sistema berriaren bidez, zuk zeuk egindako kafe espresso profesionala gozatuko duzu.

Zentzumenetarako plazer hutsa
Personal Esspreso, prezioz aterata, kafearen usain eta zapore guztiak lortzen ditu.

Erraza, garbia eta azkarra
Kafe barietatea aukeratu eta kapsula kafeteran sartu baino ez duzu egin behar; segundo gutxitan kafe espresso profesionala eta ezin hobea izango duzu prest.

Primerako kafea prestatzea inoiz baino errazago.



*La Tostadora dendara hurbil zaitetz zure etxerako monodosietako *espresso*rik onena ezagutzera*
Andra Mari Kalea, 8 (Durango) - 946 814 836
Mazarredo Zumardia, 8 (Bilbo) - 944 245 116

IRAGARKIAK

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu

IRAKASKUNTZA

- Klaseak hartu
- Klaseak eman

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK




- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztu eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua).
Tel.: 667 882 338

Otxandio. Pisua salgai. Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, balkoia eta despentsa. Tasatutako prezioan.
Tel. 675 905 227

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Abadiño. Etxebizitza salgai Zelaietan. Sukaldea, bi logela, egongela, despentsa, balkoia eta bi komun. 90 m2. 234.000 euro. Toki lasaian. Garajea aukeran. Tel.: 652 750 293

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin.
Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Pisua alokagai. Komuna, sukaldea, lau logela eta egongela.
Tel.: 657 795 495

Elorrio. Etxebizitza alokagai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Lokal bat alokatzen da etxebizitza izateko. 150 m2. Nahiko merke. Tel.: 688 632 078

ERRENTAN HARTU

Durango. Etxebizitza bila gabiltza, berogailuarekin. Bikotea semearekin.
Tel.: 637 292 465

Elorrio. Pisu bila nabil. Jantzita edo erdi jantzia. Berogailuarekin.
Tel.: 94 658 21 91.

KONPARTITU

Durango. Baserrikidea behar dugu.
Tel.: 666 202 273

Etxea konpartitzen dut. Logela bat errentan.
Tel.: 657 700 321 (Roman).

Zaldibar. Pisukide gazte baten bila nabil pisua konpartitzeko.
Tel.: 685 724 619

MOTORRA SALGAI

Renault Megane Scenic Kaleido 1.9 DTi salgai. Diesela, aire girotuarekin. Irrati-kaseta CD kargadorea, aleazioko llantak, itxiera zentralizatzailea, airbaga, ABSa, norabide laguntzailea eta kristal-jasogailu elektrikoak. Kateak eta ekipaiarako barrak opari. 3.900 euro. Tel.: 653 726 708

Kia Sportage 2.0 TDI salgai. Bola eta aurreko paratxokea barne. Beti garajea gordetako. Egoera oso onean.
Tel.: 617 476 685

Mazda 6 Diesel salgai. Familiarra. 136 cv. Gehigarriekin. 6 urtekoa. Oso aukera ona. Prezioa negoziatzeko prest.
Tel.: 636 237 730

LOKALAK

SALGAI

Abadiño. Garajeko plaza bat salgai Zelaietan. Trastelekua erantsita dauka.
Tel.: 695 712 520

Durango. Garaje itxia saltzen dut. 28.5 m2 ditu. Maristak ikastetxe aurrean (Tronperri kalea).
Tel.: 667 851 508 (Goizalde)

Elorrio. Pabiloi bi salgai ditut. Bata 630 m2-koa eta bestea 360 m2-koa.
Tel.: 657 793 993

ERRENTAN EMAN

Durango. Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

Durango. Musika taldeentzako lonja bat alokagai. Insonorizatuta. Gela bi ditu. Tel.: 615 750 039

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN HARTU

Abadiño. Garajea alokatu nahi dut Muntzaratz inguruan. Tel.: 691 731 075

IRAKASKUNTZA

EMAN

Injineru informatikoa Batxilergo eta DBH klaseak emateko prest. Euskara eta ingeles maila ona.
Tel.: 685 752 398 (Jon)

Magisteritza ikasitako neska euskalduna klase partikularrik emateko prest. Esperientzia daukat.
Tel.: 615 735 385

HARTU

Bakarkako ingeles klase partikularrik jaso nahi ditut. Tel.: 690 776 431

ANIMALIAK

SALGAI

Kanario horiak saltzen ditut.
Tel.: 689 586 054

Astakumeak salgai. Tel.: 676 107 469

BESTEAK

SALGAI

Saillish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178cm, 68-78 Kg).
Tel.: 665 714 783

Autorako aukia salgai. Romer Isolux duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

Bibolina salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arku, resina eta ordezko sokak. Egoera onean. 40 eurotan.
Tel.: 637 292 465

Telefono mugikorra salgai. LG markakoa. Kargadorearekin.
Tel.: 689 847 603 (Nerea)

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut. Tel.: 696 325 811

LANA

ESKAERAK

Emakume bat behar da umea eskolara eramateko (07:30etik 09:00etara) eta etxeko lanak egiteko (ordutegia zehazteke).
Tel.: 656 764 504

Garai. Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Astelehenerdik ostiralera arte, egun osoan. Kotxea beharrezkoa da.
Tel.: 618 822 048

Berriz. Umea zaintzeko pertsona behar da.
Tel.: 619 626 670

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenturako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du hedabide digital baterako. Derrigorra da heziketa eta esperientzia izatea, euskara eta webmasterra menperatzea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.316. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Abadiño. Administrazio laguntzailea behar da aholularitza enpresa batean, departamendu pertsonalerako. Egun erdiz lan egiteko. Derrigorra da Lan Harremanetako diplomatura azken lau urteetan eskuratua izatea, praktiketako kontratua egin ahal izateko; Nominen Foke programa ezagutzea, kotxe propioa eta Durangaldean bizitzea. Erref.: 8.526. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durangaldea. Bilboko enpresa batek aseguru merkataria behar du bezeroak lortu eta mantenturako, baita ordezkaritza ere. Derrigorra da 28-50 adin tartekoa izatea, diplomatura eta esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. 2010eko urtarrilean hasteko, egun osoz. Erref.: 8.527. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Zuzendaritza idazkaria behar da aurkezpenak egiteko, ingelesez komunikatzeko, administrazio lanak egiteko eta proiektuak garatzeko. Derrigorra da arloko formazioa izatea, ingeles maila altua eta ordutegi malgua izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 8.558. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Geriatriko erizaintza laguntzailea behar da. Derrigorra da formazioa izatea, urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Euskaraz jakitea baloratuko da. Egun oso lanaldian. Erreferentzia: 8.666. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINZAK

Erizaina lan bila dabil. Esperientzia geriatrian eta erreferentzia askorekin. 10 urte alorrean lanean. Titulu homologatua. Beste lan batzuetarako ere prest. Tel.: 695 722 021

Neska euskalduna goizez zein arratsaldean lan egiteko prest, klase partikularrik ematen edo umeak zaintzen. Kotxea daukat.
Tel.: 628 406 696 (Ixone)

26 urteko neska euskalduna astean zehar goizetan lan egiteko prest, umeak zaintzen edo antzeko zerbaitean. Tel.: 607 340 659

Neska euskalduna, portalak eta tabernak (gazez) garbitzeko prest.
Tel.: 664 146 904

Argazkilaria esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean.
Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreinatzen. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atarte. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2



Mendi bizikletarako balaztak salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatuta gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arko izozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. Ia-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

Karreratako bizikleta eta ziklo krosetako bizikleta salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan. Tel.: 606 266 244

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S" ~ 155cm. Tel.: 658 738 734

EROSI

Bikiak paseatzeko aulkitxo erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilarizan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurraekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zerbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorekin garbiketarako egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreproduzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzeko nahi badozu deitu hurrengo zerbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Ekitaldi ahaztezin bat izan nahi baduzu girotu ezazu zeure gustuko musikarekin. Biotxe Durangoko biolontxelo eta biolin bikotea da. Orkestretan jotzen hainbat urte egin eta gero, erreperitorio zabala dugu aukeran ezkontza, inaugurazio eta ekitaldiak girotzeko. Euskadi osoan zehar mugitu gaitzake. e-posta:biotxe@hotmail.com Tel.: 635 746 176 (Maialen)

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbroso Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2)
- Antso Eztegi: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriuzeta: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebeideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Elorrio: Halla, sukaldea, balkoia, 3 logela, egongela eta komuna. Trasteleku eta garajea.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, logela eta balkoia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa. Ganbararekin.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. 42 m2-ko terraza.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Murueta Torre (V. Bizkaia) : 88 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Ambrosio Meabe: 108 m2. 3 logela. 2 kotxerentzako garaje itxia. Ganbara.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñituri – Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Asbiki: 74 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta ganbara. Balkoi handia.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- Mikeldi: 50 m2. Logela bakarra. Garajea eta ganbara. Erdi berria.

ZALDIBAR: Lursaila. Eraikitzeko aukerarekin. **BERRIZ, ZALDIBAR, ELORRIO, ABADIÑO:** Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.

ETXETXO G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. inmodurango@gmail.com
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

ETXEBIZITZA SALGAI

- Frantzisko Ibarra: 90 m2. Logela bakarra eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 340.000 €.
- Durango: 2 logela. 156.300 €.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Durango: Estreinatzeko. Logela bakarra. Sukaldea jantzita. 192.000 €.
- Tronperri: 115 m2. Hidromasaje-bainuontzia. Gustatuko zaizu.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.
- Pinondon: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegi ikusgarriak.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 3 logela eta 2 komun. Garaje itxia.
- Tabira: 3 logela eta 2 logelakoak. 2 komun. Eguzkitsua.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegi: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Igogailua. 228.400 €.
- Ezkurdi: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdi: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia. IURRETA
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. 200.000 €.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzita. 210.000 €.

ABADIÑO

- A.Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trasteleku. Garajea.
- Matiena: 3 logela. 180.000 €.

ZALDIBAR / BERRIZ

- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea. 201.188 €. (33,5 mill.)
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.

BERRIZ

- Iturriza: 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.

PABILIOIAK SALGAI

- Frantzisko Ibarra: 50 m2. Alokairuan. 540 €.
- Durango: Bulegoak. 55 m2 eta 65 m2. Alokairuan.
- Madalena: (Landako) 80 m2. Instalazio guztiek.
- Iurreta: 109 m2. Alokairuan.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.

Amboto
San Agustínakle, 4 - 1 Eka.DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekokoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarrekoko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, ekegitokia eta trasteleku.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara, garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trasteleku. Estreinatzeko.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatzeko. Informazio pertsonalizatua.

DENPORAPASAK >

	Gauza pozoitsua	Egokitu	Itzagaond oako
	Eden	Ukimendu	
	... edo zart, erabakil!		
	Pregoi!		
Kiskalaraz ia	Ekialdean, bost		
* Irudiko altzaria	Marmola lantzen du		
Sailkapen			
Kolore mota			
		A birritan Nafarroako herria	
Bizkaiko herria			
Dena, guztia			
	Ez argi		
	Izan		
Pl., sexu emea			500
Barazki hostotsuak			Bizkaiko ibaia
		Ale lanadre	
		Utik!	
Iraupena			
Gaintzako			

1

7		2		1	6
8	5	6	9	7	
4		2	3	5	8
5	6		4	7	1
				3	7
9		5			
	7		5	4	6
3	9		1	8	6
	4			2	3

2

			3		
	6			9	7
9	3				3
		9	2		8
5	4				
8	7			4	
		3			2
		2	6		9
	8		7		

HOROSKOPOA >

Aries
 marxoak 21 - apirilak 20
 Mila biderrez jo dozu ate hori, eta beti atxakiaren bat ipini deusue. Ate eta aukera gehiago be badagoz mundu honetan...

Taurus
 apirilak 21 - maiatzak 20
 Ohitura txar batzuk izatea ez da oso kezagarria; baina, adi ibili, mania txarragoak hartu barik.

Gemini
 maiatzak 21 - ekainak 20
 Gora begira egoten zaren aldi horreetan zer pentsatzen dozu? Konponbidea zerutik etorriko dela, akaso?

Cancer
 ekainak 21 - uztailak 20
 Denpora librean zer egin ez dakizula bazabilz, kontuan izan Azoka gainean daukagula. Erosi egizuz lau edo bost liburua.

Leo
 uztailak 21 - abuztuak 23
 Besteak gidari daukazuzenean, oso ondo ibiltzen zara, baina bakarrik joaten zarenean, nola moldatuko zara?

Virgo
 abuztuak 24 - irailak 23
 Lanetik ateratzean, etxeko lanak, erosketak... Mugimendua ez da inoiz amaitzen. Aste honetan lasai hartu egizu.

Libra
 irailak 24 - urriak 23
 Zergaitik txikitzen zara horrenbeste arazo potoloren bat jatortzunean? Jarrera horregaz ez dozu gauza handirik lortuko!

Scorpius
 urriak 24 - azaroak 23
 Jenteak hainbeste bider esaten badeutsu, ez ete zeunke pentsatu beharko zeozergaitik izango dela? Kasu egin ingurukoiei...

Sagittarius
 azaroak 24 - abenduak 23
 Hainbeste pertsonari ezezkoa emon eta gero, orain ez egizu pentsatu zuk gura dozuna eskuratuko dozunik.

Capricornus
 abenduak 24 - urtarrilak 20
 Lanean aspertu egiten zarela? Ez egizu ozenegi esan, laster emongo deusue-eta zeregin gehiago. Hori gura dozu?

Aquarius
 urtarrilak 21 - otsailak 18
 Pertsona batek ezetz esaten deusunean, ezezkoa dela ulertu behar dozu. Ez engainatu zeure burua!

Piscis
 otsailak 19 - martxoak 20
 Beti autoan alde batetik bestera. Zertarako daukazuz hankak? Hasi zaitetz oinez ibiltzen.

ZORION AGURRAK > agurrak: zorionak@anboto.org-ra
 Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta



Jittanatxo elegante honek domekan 27 urtetxo bete zituen. Imaginatzen dot jakin dozula noren partez den zorion agurra. Mosu bat!



Mosu potolo-potolo bat, **Aiala**, etxeko guztien partez. Santikurutzeko gure bilbotarrak laster urtetxo bi egingo ditu.



Azaroaren 17an bost urte egin zituen mutiko handi honek. Mosu handi bat etxeko guztien partez, eta orain bezain alai jarraitu.



Asser eta Teresa iloba-amamek azaroaren 23an eta 27an urteak egin ditue. Familia osoa gaur batuko da, luntx eder bat dastatzeko Axpeko baserrian. Zorionak, bikote!




Rakelek urteak egin zituen azaroaren 20an. Zorionak eta mosu handi bat, zure miresleak diren senar Ibon eta seme Inharren partez.



Luciak datorren abenduaren 2an urte bat egingo dau. Jarraitu betiko moduan pozik. Zorionak eta mosu bat. Durangoko familia.



Ainara Colladori eguaztenean 32 urte "jauzi" jakozen. Zorionak, Kanpanilla! Lasai, guapa, ez dirata hainbeste!



Martin Torrecilla Areitiok lau urtetxo egingo ditu bihar. Gaur ospatuko dogu txokolatada. Pastelari indartsu putz egin, gero!



Tiliñok eguaztenean urteak egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat, familiaren partez. Ikusiko gara egingo dozun afari-meriendan.



Zorionak, **Txarli!** Azaroaren 29an 30 urte egingo ditu. Urteak aurrera doaz, baina zuk betiko moduan jarraitzen dozu. Mosu bat.



Zorionak, **Aihotz!** Gabonilaren 1ean hiru urte egingo dozuz. Ondo pasatu, Kuxkurtsu, aita eta amaren partez. Musu bat.



Zorionak, **June!** Hiru urte egingo dozuzelako azaroaren 29an. Mosu asko, familiaren partez. Ia erregalu asko jasotzen dozuzen.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Nekane** eta **Aitziber**. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeueri egokitu jatzu. Oparia eskuratzeko txartela gura dozunean jaso zeinke.

EUSKO LABEL >

Eusko Labela duen Esne Bildotsaren sasoian gagoz bete-betean



Eusko Labeldun Bildotsa behar den legeaz identifikatuta dago.

Eusko Labela duen benetako Esne Bildotsa garai-ko produktua da, azarotik maiatzera bitartean ekoizten dena, 100 % naturala, Euskadi bertako arrazetakoa: 'Latxa' eta 'Karrantzana'. Bere amaren esne-agaz elikatzen da, eta 3 eta 5 aste bitartea dituen hiltzen da; horrek, emaitza moduan haragi samur eta zapore bikainekoa dakar.

Produktu hori bere fase guztietan kontrolatuta dago, ekoizpenetik hiltegiara heltzen den arte. Ekoizpenean, baimendutako artzainen erregistroak kontrolatzen dira, eta jatorri geografiko eta genetikoen eta elikaduraren kontrola be egiten da. Hiltegiaren barriz, Kalitateko berezitateko teknikariak bildotsen hilketa eta prestaketa lan zorrotza gainbegiratzen dabe, produktuen araudian ageri diren kalitate ezaugarriak kontuan hartuz, eta, azkenean, teknikari honeek bildots horreek Eusko

Labelagaz identifikatzen ditue.

Identifikazioa

Eusko Labela daukan Esne Bildotsak Eusko Labelaren logotipoa daukien zenbatutako 4 kontrol etiketa daroaz, bat laurden bakoitzean. Etiketatik hiltze data eta hiltegiaren izena agertzen da, kontsumitzaileek behar horren barri izan daien.

Iruzurak galaraziz

Azken urteotan atzerriko produktu (Frantzia, Eskozi, Gales, Grezia, Zelanda Berria, Italia, Txile) asko sartzen ari da gure merkatuetan, eta, atzerriko bildotsaren sarrera horren aurrean, Eusko Label kalitateko markagaz identifikatuta dagoen Esne Bildotsa kontsumitzeko deia egiten dogu.

Modu honetan, erositako bildotsa Euskal Autonomia Erkidegoko dela eta bertako arrazakoa dela ziurtatuko dogu, eta hasieratik gertatzen diren iruzurrak galarazi.

Arkume errea

Elikagaiak:

- 1 kg esneko arkume bazkaltiar bakoitzeko
- Ura
- Gatza eta piper-hautsa
- 6 baratxuri ale
- Baso bat ardao zuri

Elaborazioa:

1. Labeleko ontzi edo erretilu batean arkumea jarriko dogu, gatza eta piper-hautsa bota ondoren.

2. Ontziaren hondoan ur dezente eta baratxuri zurituak jarriko doguz.

3. Labean sartuko dogu, 200°-220°-tan, eta apurka-apurka egiten itziko dogu kolore gorria hartu arte.

4. Erretzen den bitartean, zatiak jiratu eta labeleko ontzian dagoen likidoa gainetik botako deusagu.

5. Amaieran, arkumea ia erreta dagoenean, ardo zuri apur bat bota eta labean itziko dogu zerbitzatu arte.

On egin!

ARDAOAREN NEGARRA "Sulfitoak"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Konturatu zinetenez, 2005. urtetik aurrera, Europar Batasunean eginiko ardao-botiletan, beharrezkoa den termino barri bat agertzen da: 'sulfitoak daukaz/contiene sulfitos'. Termino barri horregaz, inor ez daitela beldurtu, enologiak asko zor deustoa eta anhidrido sulfurosoa edo enologian gehiago erabiltzen dena: metabisulfito potasikoari; produktu horixe da, besteak beste, ardao antiseptiko bihurtu eta kontserbatzen dauena. Eta ez zaitez arduratu, Europar Batasunak ardao mota bakoitzari bota leikion gehieneko kopurua ezartzen dau-eta. Ardao berez ezin leiteke kontserbatu. SO2 izan da ardao kanpora atera daiten ahalbidetu dauena, baita garraiatzen eta barriketan zahartzen be; ardaoaren lurrinak eta freskura mantentzen ditu, eta botilan be kontserbatzen dau; bestela aldatu eta gaixotu egingo litzateke. Ardao ekoiztean, SO2 asko erabiltzen da. Merkatuan dagoen ardao ia denek SO2 daroe, nahiz eta ardao ekologikoetan bota leiteken kopuru txikiagoa izan.

Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Comercio autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA
TRANABARREN, 29-MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO FLAZA, 8

Otxandio

- GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

- INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

- OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarako Piparrak", pote 1 Esi, Iñigozabal gatza, botelita 1 "Bizkaiko Txakolina", botelita 1 "Arobar Enriaroko Ardao", botila 1 Arobar Enriaroko Olio Birjina, Txakolinazko bonboi-kutxa 1 eta 300ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Ollaskoaz irukatzeko.



Gotzone Barandika
EHUko irakaslea

Musu Eguna

Antza denez, gaixotasunek, jantziek bezalaxe, modasasoiak dituzte, eta azken bolada honetan A gripea du "fashionena". Zer esanik ere ez, zerbait modan jarri ahal izateko propaganda mordoa egin behar da, eta aurten A gripeari tokatu zaio zorte hori. Aurrekoaren bitartez, ez dut aditzera eman nahi A gripea garrantzi txikiko arazoa denik. Hots, gaineratu nahiko nukeena da hori bezain larriak diren osasun-arazo pilo dagoela, eta horiei ez dietela eman horrenbeste "bonborrik". Hala diote, behintzat, nire lankide mikrobiologo eta immunologoek.

A gripea arriskutsua dela guztioi jakinarazi guran, hamaika gomendio eman dizkigute osasun-agintariek, horietako batzuk bitxi-bitxiak. Nire ustez, aparteko aipamena merezi dute gure arteko kontaktu fisikoa ekiditeko aholkuek, erabat desproporzionatuak iruditzen baitzaizkit. Guztiz, hilgarritasun jasangarria atxikita duen gaixotasun bati aurre egiteko, zelan proposatu dira halako neurriak? Besarkadarik ez, musurik ez, bostekorik ere ez? Giza ikuspuntutik zein biologikotik, bizitza partekatzean datza; birusak, bakterioak eta abarreko "bitxoak" barne.

Muturrek elkar ukitzen dutela dio esaerak, eta hori aplikatuz, agian, guztiz kontrako neurriren bat hartu beharuko lukete agintariek. Agian, Musu Eguna asmatu beharko lukete. Musu Egunean ahalik eta lagun gehien musukatze-ra behartuta egongo ginateke. Agindu hori beteko ez luketentzat isunak ere proposa daitezke. Musu-estiloa, libre, hori bai. Zer gertatuko litzateke? Txantxetan nabil, noski. Ala ez. Batek daki...

"Egutegia egiteko asmoa etxean sortu jakon emazteari"

Iurretako suhiltzaileek egutegiak salgai jarri ditue Minbiziaren Kontrako Elkarteari laguntzeko

Suhiltzaileen egutegiek sortzen daben ikusmina baliatu dabe lurretan helburu solidario bat betetzeko. Iurretako suhiltzaileek Minbiziaren Kontrako Elkarteko Bizkaiko Batzordera bideratuko dabe asteen salgai jarri ditueen egutegiak irabazitako dirua. Aurten, denpora barik ibili direnez, argazki pare bat atera ditue, baina datorren urterako baleiteke Bilboko suhiltzaileen adibidea jarraitzea.

Zelan sortu da egutegia kalera-tzeko asmoa?

Etxean sortu jakon emazteari. Suhiltzaileen egutegiak daukien arrakastagaz, elkarteren bati laguntzea da asmoa. Berehala Suhiltzaile parkean azaldu neban.

Lankideek zer erantzun eutsuen?

Pozik hartu eben asmoa. Bata besteagaz komentatzen hasi ginen, bakoitxak ahal dauen neurrian lagunduz. Iurretan kontaktuak daukazenak salgai jartzeko lekuak topatu ditue, beste batek komunikabideetan kontaktu bat zeukan, eta ekimena aurrera erotekotan ginela hedabideetan kale-ratu eben.

Zelan aukeratu dozue elkartea?

Laguntza eskaintzeko elkarte asko zegozen, eta azkenean zerrenda horretatik Minbiziaren Kontrako Elkarteko Bizkaiko Batzordea aukeratu genduen. Deitu geuntse-nean, harriduragaz hartu eben asmoa. Egutegia

egiten hasi ginela ikusita harrera ona izan dau.

Denpora gixian kaleratu dozue.

Orain hogeiegun sortutako asmoa izan denez, hamabi argazkiko egutegi handi bat egiteko ez dogu astirik izan. Beraz, errazena poltsikoko egutegia kaleratzea dela erabaki dogu. Argazki bi atera doguz; beraz, bi egutegi daukaguz kalean.

Zelako argazkiak dira?

Taldeko argazkia atera dogu lane-ko trajeagaz jantzita.

Batzuek dinoe arropa larregi daukazuela.

Datorren urterako proiektu lan-duago bat badago, eta arropa gixiagogaz atera behar badogu, izan leiteke. Aurten, baina, ez genduen denporarik horrelako argazki bat ateratzeko. Helburu on bat lortzen bada, hori be ondo dagoela deritzot.

Sasoi onean ez zagozienik ez dozu esan gurako!

Suhiltzaile

leok, pasatu behar doguzen probekin, asko zaintzen gara.

Zer asmo daukazue datorren urterako?

Bizkaiko sei parkeetako suhiltzaileekin osatutako egutegia kalera-tzea gustatuko litzakigu. Egutegia horman jartzekoa eta landuagoa izan leiteke.

Nor izan dozue egutegirako argazkilari?

Julen Uribek musutruk lagundu deusku.

Egutegi honek non erosi geinkez?

Durungaldeko +Dendak elkarteagaz hartu-emonean jarri gara, inguruko dendetan salgai jarri ahal izateko. Laguntza handia izango litzake. Durangoko Liburu eta Disko Azokan Gerediaga Elkartearen standean be salgai jarriko doguz. Iurretako suhiltzaile parkean be eskuragarri izango dira.

Zeuek be banatuko dozue.

Egutegi kopuru handiena suhiltzaile bakoitxak ingurukoen artean banatuko dauena izango da. Senitarteko eta lagun artean banatuta, ia denak saltzea lortzen dogun.

Suhiltzaileen egutegiak zergaitik dagoz modan?

Bilboko suhiltzaileen egutegia denen erreferentzia dela esango neuke. Suhiltzaileen irudia goitik behera aldatu dau egutegi horrek.

Javi Martinez •

Ortuellarra

Iurretako suhiltzailea



Eskerrik asko gure bezero guztiei. Zuen konfiantzak egunez egun hobetzen laguntzen digulako, eta, ahalegin horri esker, Zerbitzu Kalitatean Liderrak* garelako, Estatuko 105 finantza-entitateen artean egindako azken txostenaren arabera.

* Lehen postua: EQUOS indizea; Iturria: INFORME STIGA 2008